

itur

**AURREZKI KUTXAK EDO ESTATUKO MERKATARITZA-SOZIJETATE EDO ERAKUNDE PUBLIKO EZ DIREN
ETA MERKATU OFIZIALETAN NEGOZIATZEN DIREN BALOREAK JAULKITZEN DITUZTEN
BESTE ERAKUNDE BATZUETAKO ERAKUNDE-GOBERNUAREN URTEKO TXOSTENA**

JAULKITZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

ERREFERENTZIA EKITALDIAREN AMAIERA-DATA	2019/12/31
--	------------

IFK	A95653077
------------	-----------

IZEN SOZIALA

KUTXABANK, SA

HELBIDE SOZIALA

KALE NAGUSIA, 30-32 (BILBO) BIZKAIA

A. JABETZAREN EGITURA

A.1 Zehatz itzazu zure erakundeko akziodun edo partaide esanguratsuenak ekitaldiaren itxiera:

Akziodunaren edo partaidearen izena edo izen soziala	Kapital sozialaren gaineko %
CAJA DE AHORROS DE VITORIA Y ÁLAVA-ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA, FUNDACIÓN BANCARIA	% 11
FUNDACIÓN BANCARIA KUTXA-KUTXA BANKU FUNDAZIOA	% 32
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDACIÓN BANCARIA – BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU FUNDAZIOA	% 57

A.2 Adieraz ezazu, kasuaren arabera, zein harreman-mota dagoen akziodun edo partaide esanguratsuen artean, senitartekoa, komertziala, kontratupekoa edo sozietatekoa, erakundeak ezagutzen dituen heinean, salbu eta garrantzirik ez izan edo igorpen edo trafiko komertzial arruntetik eratorritakoak izan:

Zerikusia duten izenak edo izen sozialak	Harreman-mota	Deskripzio laburra
Daturik gabe		

A.3 Adieraz ezazu, kasuaren arabera, zein harreman-mota dagoen akziodun edo partaide esanguratsuen eta erakundearen artean, komertziala, kontratupekoa edo sozietatekoa, erakundeak ezagutzen dituen heinean, salbu eta garrantzirik ez izan edo igorpen edo trafiko komertzial arruntetik eratorritakoak izan:

Zerikusia duten izenak edo izen sozialak	Harreman-mota	Deskripzio laburra
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDACIÓN BANCARIA – BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU FUNDAZIOA	Kontratukoa	Zerbitzuak emateko kontratua
FUNDACIÓN BANCARIA KUTXA-KUTXA BANKU FUNDAZIOA	Kontratukoa	Zerbitzuak emateko kontratua
CAJA DE AHORROS DE VITORIA Y ÁLAVA-ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA, FUNDACIÓN BANCARIA	Kontratukoa	Zerbitzuak emateko kontratua

A.4 Adieraz ezazu murriztapenik dagoen (estatutukoa, legekoa edo edozein motatakoa) baloreen eskualdagarritasunerako eta/edo boto-eskubideari egindako murrizketarik. Bereziki, bere akzioak merkatuan erosita, sozietatearen kontrola hartzea eragozten duen murriztapenik dagoen jakinaraziko da, baita sektoreko araudiaren arabera aplika dakizkiokeen baimen erregimenik edo aurretiazko komunikazio erregimenik dagoen ere, konpainiako finantza-tresnen erosketari edo eskuz aldatzeari buruzkoak:

BAI	
EZ	X

B. BATZAR NAGUSIA EDO ORGANO BALIOKIDEA

B.1 Aipa itzazu banan-banan batzar nagusiaren edo organo baliokidearen estatutuetan zehaztutako eratze-quorumak. Deskriba ezazu zertan desberdintzen den Kapital Sozietateen Legean edo ezar dakioken araudian ezarritako gutxiengoaren erregimenetik.

Sozietatearen estatutuetako 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, Akziodunen Batzar Nagusia, ohikoa edo ezohikoa, lehen deialdian behar bezala eratuta geratuko da, bertaratutako edo ordezkaturako akziodunek, gutxienez, harpidetutako kapital sozialaren ehuneko hogeita bost (% 25) dutenean, boto eskubidez. Bigarren deialdian, balekoa izango da batzarraren eratzea, bertaratu den kapitala edozein delarik ere. Hori guztiori, une bakoitzean ezar daitekeen araudiak, edo sozietatearen estatutuek, eskakizun zorrotzagoak badituzte, zehazten dituzten quorum eskakizun berezien kalterik gabe.

B.2 Azal ezazu gizarte akordioak hartzeko erregimena. Deskriba ezazu zertan desberdintzen den Kapital Sozietateen Legean edo ezar daitekeen araudian zehaztutako erregimenetik.

Sozietatearen estatutuen 20.2 artikularen arabera, akordioak batzarrera bertaratutako edo ordezkaturako akziodunen botoen gehiengo arruntez hartuko dira. Hala ere, boto eskubidea duen harpidetutako kapitalaren, gutxienez, ehuneko berrogeita hemeretzi (% 59) duten bertaratutako edo ordezkaturako akziodunen aldeko botoa eskatuko da, batzar nagusiak honako akordio hauek baliozkotasunez har ditzan:

- (i) Kapital sozialaren gehikuntza, lehentasunezko eskubidea erabat edo partzialki ezabatuta eta kapital sozialaren murrizketa. Salbuespena dira aplikagarria litzatekeen araudia betetzeko beharrezko kapital gehikuntzak, edo ikuskatze-agintarien eskaeraz eta, edozein kasutan, lehentasunezko eskubidea aitortuko da, aplikagarria den legearen terminoetan.
- (ii) Obligazio bihurtarrien, aukeren, *warrants* deritzenen edo akzioak erosteko edo harpidetzeko eskubidea ematen duen beste edozein balioren jaulkipena.
- (iii) Aktiboen eta pasiboen eraldaketa, bategitea, banatzea, desegitea edo lagapen globala.
- (iv) Kontseilari kopurua zehaztea, sozietatearen estatutuetako 25. artikuluan ezarritako gutxiengoak eta gehiengoaren artean.
- (v) Sozietatearen estatutuak aldatzea.

Hori guztiori, une bakoitzean aplikagarria den araudiak zehazten dituen gehiengoaren eskakizun berezien kalterik gabe, beti ere zorrotzagoak badira.

Aipaturako gehiengoak ez datoz bat, zorrotzagoak direlako, Kapital Sozietateen Legeko 201. artikuluan ezarritakoekin, eta horren arabera, goiko puntuetan adierazitako akordioak (IV. puntua izan ezik, oro har gehiengo baxuagoari lotuta ere egoten baita) gehiengo osoz hartuko dira, bertaratu den edo ordezkaturako dagoen kapitala % 50 baino altuagoa bada eta, bertaratutako edo ordezkaturako kapitalaren bi herenen (2/3) aldeko botoa beharko da, bigarren deialdian, boto eskubidez jaulkitako kapital sozialaren % 25 edo hortik gora ordezkatzeko duen akziodun kopurua biltzen bada, % 50era iritsi barik.

B.3 Zehatz ezazu, labur, txosten honi dagokion ekitaldian izandako batzar nagusietan edo organo baliokideetan hartutako akordioak eta zein boto portzentaje hartu diren (4000 karaktere gehienez)

* 2019ko ekainaren 21ean Akziodunen Ohiko Batzar Nagusi Unibertsala egin zen, eta, besteak beste, honako erabaki hauek hartu ziren aho batez:

- Sozietatearen urteko kontu indibidual eta bateratuak onartzea, emaitza aplikatzea eta 2018ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko kudeaketa soziala onartzea.
- KUTXABANK, S.A.ren kudeaketa-txostenean, banakakoa eta bateratua, jasotako informazio ez-finantzarioaren egoera-orria onartzea, 2018ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiari dagokiona.
- Deloitte, S.L.ren izendapena berritzea KUTXABANK, S.A.ren Kontu Auditore izateko, 2019ko ekitaldiko urteko kontuen auditoria egiteko, banakakoak eta bateratuak.
- PriceWaterhouseCoopers Auditores, S.L. izendatzea KUTXABANK, S.A.ren kontu-auditore, 2020ko, 2021eko eta 2022ko ekitaldietako urteko kontuen auditoria egiteko, banakakoak eta bateratuak.
- Francisco Javier García Lurueña jauna KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluko kide eginkizunetan berritzea, estatutuetan aurreikusitako epealdirako.

* 2019ko abenduaren 19an Akziodunen Ezohiko Batzar nagusi Unibertsala egin zen, eta, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen aho batez:

- Administrazio Kontseiluko kideentzako (exekutiboak eta ez-exekutiboak) ordainsariaren gehieneko zenbatekoa onartzea 2019. urtean.
- KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluaren Ordainketa Politikaren bertsio berria onartzea.
- 2019ko ekitaldiko konturako dibidendua banatzea.

B.4 Adieraz ezazu ekitaldian burutu diren batzar nagusietan edo organo baliokideetan akziodunek onartu ez duten eguneko gai-zerrendako punturen bat egon den.

Eguneko gai-zerrendako puntu guztiak onartu dituzte akziodunek.

B.5 Adieraz ezazu erakunde gobernuak web gunean duen edukira sartzeko helbidea eta modua

http://www.kutxabank.com/cs/Satellite/kutxabank/eu/inbertsiogileentzako_brinformazioa/informazio_finantzarioa/gobernu_korporatiboari_buruzko_urteko_txostena

http://www.kutxabank.com/cs/Satellite/kutxabank/eu/gobernu_korporatiboa_breta_lansarien_politika

B.6 Adieraz ezazu zure kasuan dauden sindikatuen bilerarik egin den, eta erakundeak jaulkitako baloreen edukitzaileen bilerarik, txosten honi dagokion ekitaldian egindako bileren helburua eta hartu diren akordio nagusiak.

Ez da obligaziodunen sindikatuen ezta antzekoen bilerarik egin 2019ko ekitaldian.

C ERAKUNDEAREN ADMINISTRAZIOAREN EGITURA

C.1 Kontseilua edo administrazio organoa

C.1.1 Zehatz itzazu estatutuetan ezarritako kontseilari edo administrazio organoko kide kopuru gehienekoa eta gutxienekoa:

KONTSEILARI GEHIENEKO KOPURUA	20
KONTSEILARI GUTXIENEKO KOPURUA	10
BATZARRAK FINKATUTAKO KONTSEILARI KOPURUA	16

C.1.2 Bete ezazu jarraian dagoen kontseiluko edo administrazio organoko kideei eta haien ezaugarriei buruzko taula:

Kontseilariaren / administrazio kontseiluko kidearen izena edo izen soziala	Pertsona fisikoaren edo izen sozialaren ordezkaria	Izendatzearen azken data
José Antonio Ruiz-Garma Martínez jauna		2016/06/30
Francisco Javier García Lurueña jauna		2019/06/21
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna		2016/06/30
Gregorio Villalabeitia Galarraga jauna		2018/11/30
Josu de Ortuondo Larrea jauna		2016/06/30
D. José Julio Zatón Salazar		2018/09/06
María Victoria Mendia Lasa andrea		2016/06/30
Roxana Meda Inoriza andrea		2016/06/30
José Miguel Martín Herrera		2017/07/28
Juan María Ollora Ochoa de Aspuru jauna		2017/05/03
Antonio Villar Vitores jauna		2016/06/30
D. Jorge Hugo Sánchez Moreno		2017/07/28
María Manuela Escribano Riego andrea		2016/06/30
Alexander Bidetxea Lartategi jauna		2016/06/30
Jesús M ^a Herrasti Erlogorri jauna		2016/06/30

2019ko abenduaren 31n kargua indarrean duten kontseilariak identifikatu dira taulan. Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna (iazko Erakunde-Gobernuaren Urteko Txostenean jasota geratu zena) KUTXABANK, S.A.ren kontseilari izan zen 2019ko urriaren 29ra arte, eta, une honetan, postu huts bat dago betetzeko (hautagaiaren egokitasuna ebaluatzeko prozesuan dago Europako Banku Zentralaren aldetik).

C.1.3 Identifika ezazu, kasuaren arabera, zein kontseilu edo administrazio organoko kidek hartzen duen bere gain administratzaile, administratzaileen ordezkari edo zuzendari kargurik erakundearen taldekoa den beste erakunderen batean:

Administrazio kontseiluko kidearen izena edo izen soziala	Taldeko erakundearen izen soziala	Kargua
José Antonio Ruiz-Garma Martínez jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILARIA
José Antonio Ruiz-Garma Martínez jauna	KARTERA 1, S.L.	KONTSEILARIA
Francisco Javier García Lurueña jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILARIA
Francisco Javier García Lurueña jauna	CAJASUR BANCO, SAU	ADMINISTRAZIO- KONTSEILUKO PRESIDENTEA
Francisco Javier García Lurueña jauna	KARTERA 1, S.L.	KONTSEILARIA
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILARIA
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	KARTERA 1, S.L.	KONTSEILARIA
Gregorio Villalabeitia Galarraga jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
Gregorio Villalabeitia Galarraga jauna	KARTERA 1, S.L.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
José Miguel Martín Herrera jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILARIA
José Miguel Martín Herrera jauna	KARTERA 1, S.L.	KONTSEILARIA
Juan María Ollora Ochoa de Aspuru jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
Juan María Ollora Ochoa de Aspuru jauna	KARTERA 1, S.L.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
Jorge Hugo Sánchez Moreno jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILARIA
Jorge Hugo Sánchez Moreno jauna	KARTERA 1, S.L.	KONTSEILARIA

C.1.4 Bete ezazu jarraian dagoen taula Administrazio Kontseilua eta bere batzordeak osatzen dituzten emakumezko kontseilari kopuruari buruzko informazioaz, baita azken lau ekitaldietako bilakaeraz ere:

Emakumezko kontseilari kopurua

	2019		2018		2017		2016	
	KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%
Administrazio Kontseilua	3	18,75	3	18,75	3	18,75	3	18,75
Auditoria eta Betetze Batzordea	3	60	3	60	3	60	3	60
Arriskuaren Kontrol Batzordea	1	14,28	1	14,28	1	14,28	1	14,28
Izendapen Batzordea	1	25	1	25	1	25	1	25
Ordainsari Batzordea	1	25	1	25	1	25	1	25
Batzorde Betearazlea	0	0	0	0	0	0	0	0

2019ko abenduaren 31n kargua indarrean duten kontseilariak identifikatu dira taulan. Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna (iazko Erakunde-Gobernuaren Urteko Txostenean jasota geratu zena) KUTXABANK, S.A.ren kontseilari izan zen 2019ko urriaren 29ra arte, eta, une honetan, postu huts bat dago betetzeko (hautagaiaren egokitasuna ebaluatzeko prozesuan dago Europako Banku Zentralaren aldetik).

C.1.5 Adieraz ezazu ea sozietateak dibertsitate politikarik duen enpresaren administrazio, zuzendaritza eta gainbegiratze organoei dagokienez, zenbait kontutan, esaterako adina, generoa, desgaitasuna, edo prestakuntza eta esperientzia profesionala. Erakunde txiki eta ertainak, Kontu Auditoria Legean dagoen definizioaren arabera, gutxienez, genero dibertsitateari buruz ezarrita duen politikaren berri eman beharko du.

SI	NO	POLITIKA PARTZIALAK
		X

Erantzuna baiezkoa bada, deskriba ezazu dibertsitate politika hori, bere helburuak, neurriak eta nola aplikatu den eta ze emaitza izan duen ekitaldian. Administrazio organoak eta Izendapen eta Ordainsari Batzordeak kontseilari eta administratzaile presentzia orekatua lortzeko hartutako neurri zehatzen berri ere eman beharko da.

Sozietateak dibertsitate politikarik aplikatzen ez badu, azal ezazu zergatik ez duen egiten.

Administrazio Kontseiluak, 2015eko otsailaren 26an egin zuen batzarrean, Izendapen

Batzordeak aldeko txostena aurkeztu ostean, "Kutxabank, S.A.ren Administrazio Kontseiluan ordezkari gutxien duen sexuarentzako ordezkari helburuari buruzko politika" onartu zuen. Horren bitartez, Kutxabank, S.A.k onartu egiten du dibertsitatearen balioa Administrazio Kontseiluaren osaketan eta hainbat ikuspuntu, ikuspegi, gaitasun, esperientzia eta ibilbide profesional ekartzeko gai diren kontseilariak izatearen garrantzia ere bai, Kontseiluan bertan egiten diren eztabaidetan nahiz erabakiak hartzeko prozesuetan; izan ere, azken finean, horrek hobekuntzara daroma, funtzionamenduan, ekintzen garapenean eta Administrazio Kontseiluari dagozkion erabakiak hartzean. [Jarraipena G atalean dago]

[Oharra: jarraian adierazitakoa txostenaren bertsio ofizialean sartuko da, G atalean. Epigrafe honetarako onartutako karaktere-kopurua mugatuta dago, eta horregatik osatzen dugu urtero epigrafe hau G atalean]

Arestian esandakoaren arabera, aipatutako politikak zera ezartzen du helburu, epe ertain eta luzean, Administrazio Kontseiluaren bilakaera eta bakanterik dagoen aintzat hartuta, gizon eta emakumeen arteko oreka handiagoa lortzea kontseilu barruan, hau da, Administrazio Kontseiluan ordezkari gutxien duen sexuaren portzentajea handitzea.

Ordezkaritza-helburu hori lortzeko xedez, Izendapen Batzordeak honako orientabide hauek izango ditu kontuan bakante berriak hornitzeko:

- KUTXABANK, S.A.k berriaz bilatuko ditu eta hautagaien artean sartu, ordezkari gutxien dituen sexuko pertsonak, bilatzen den profil profesionala dutenak, salbu eta egiaztatu, hautagaien artean ordezkari gutxien duen sexuko pertsonak sartzeko neurriak hartu diren arren, ez dela posible izan. Kasu horretan, eragotzi duten arrazoiak azaldu beharko dira.
- Egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren garapenean, "*Kutxabank, S.A.ren Administrazio Kontseiluko kideen, Zuzendari Nagusien edo kideen, barne kontrol funtzioen arduradunen eta beste lanpostu giltzarrien egokitasunaren ebaluazio-politikaren*" (aurrerantzean, "Egokitasunaren Ebaluazio Politika") arabera egin dena, Batzordeak, orain arte egin izan duen bezala, ordezkari gutxien duen sexuko hautagaiari hautatzea eragozten duen soslai inpliziturik ez duela ziurtatuko du.
- Ebaluazio profesional berdinen egoera aurrean, hau da, ohore, ezagutza eta eskarmentua eta gobernu ona irizpideak errespetatuz egin dena, sexu desberdinetako bi hautagaien artean, lehentasuna emango zaio ordezkari gutxien duen sexuko hautagaiari, kasuaren arabera, oreka handiagoa lortzeko helburua lortu arte.
- KUTXABANK, S.A.k honako politika honen berri emango dio sozietatearen Akziodunen Batzar Nagusiari, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Era berean, oro har ezarri da Izendapen Batzordeak Administrazio Kontseiluari bere eskumeneko gaiekin zerikusia duten eta KUTXABANK, S.A.ri eragin diezaioketen genero aniztasunaren berri emateko duen derrigortasuna.

Horrez gain, Izendapen Batzordeak urtero ebaluatzen du Administrazio Kontseiluaren ezagutzaren, gaitasunaren, aniztasunaren (generoa eta adina) eta esperientziaren arteko oreka, kreditu-erakundeentzako antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen 24.1 artikulua bigarren lerroan eta 10/2014 Legea garatzen duen otsailaren 13ko 84/2015 Errege Dekretuaren 38.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Kreditu-erakundeentzako antolamendua, ikuskapena eta kaudimena, Administrazio Kontseiluaren Erregelamenduko 17.4.j) artikulua eta Izendapen Batzordearen Erregelamenduko 3.j) artikulua, eta, era berean, kontseilari gisa proposatutako hautagaiak izendatzeak KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluaren ezagutzaren, gaitasunaren, aniztasunaren (generoa eta adina) eta esperientziaren orekan izan dezakeen eragina ebaluatzen du, egoera hori gertatzen den bakoitzean, ondoren lortutako ondorioen berri emateko Administrazio

Kontseiluari.

Zehazki, 2019ko ekitaldian, Izendapen Batzordeak, 2019ko urtarrilaren 30ean egindako bileran, Administrazio Kontseiluaren ezagutzaren, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren arteko orekaren urteko ebaluazioa egin zuen, eta aho batez ondorioztatu zuen KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluaren ezagutzaren, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren arteko oreka egokia zela, nahiz eta, aho batez, erabaki zuen gobernu-organo eskudunei proposatzea honako helburu hau lortzera bideratutako beharrezko jarduerak: “KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluan ordezkari gutxien duen sexuarentzako ordezkari-helburuari buruzko politikan’ xedatutakoaren arabera, epe ertain/luzean, Administrazio Kontseiluan dagoen bilakaeraren eta lanpostu hutsen arabera, Administrazio Kontseiluan gizonen eta emakumeen arteko oreka handiagoa lortzea, hau da, ordezkari gutxien duen sexuaren ehunekoa handitzea”.

Geroago, 2019ko abenduaren 23ko bilkuran, Iturbe jaunak dimisioa aurkeztu ondoren Administrazio Kontseiluan sortutako postu hutsa betetzeko proposatutako hautagaitzaren egokitasuna ebaluatu zenean, Izendapen Batzordeak ebaluatu zuen hautagaitza hori izendatzeak zer eragin izango zuen KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluaren ezagutzaren, gaitasunaren, aniztasunaren (generoa eta adina) eta esperientziaren orekan, eta ondorioztatu zuen izendapen horrek, besteak beste, indartu egingo zituela Administrazio Kontseiluak finantza-sektorean duen esperientzia-maila handiagoari dagokionez dituen eskumenek, era berean, bete egingo lukete 'KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluan ordezkari txikiena duen sexuarentzako ordezkari-helburuari buruzko Politikan xedatutakoa. Politika horren bidez ezarri zen, epe ertain/luzean, Administrazio Kontseiluan dagoen bilakaeraren eta postu hutsen arabera, gizonen eta emakumeen arteko oreka handiagoa lortzeko helburua, hau da, ordezkari txikiena duen sexuaren ehunekoa handitzea.

Enplegatuei dagokienez, Zuzendaritza barne, adierazi behar da KUTXABANK, S.A.k, pertsonak hautatzeko, sustatzeko eta garatzeko politiketan, aniztasuna, aukeraberdintasuna eta genero, arraza, adin edo beste inguruabar batzuegatiko diskriminaziorik eza sartzeko dituela, eta, era berean, Berdintasun Plan bat duela, zeinak genero-berdintasuna bermatzeko ildo estrategiko eta jardura-ildo nagusiak jasotzen baititu, bertako langileek, eta, besteak beste, berdintasun-egoeraren diagnostikoei adierazten dutenaren arabera emakumeen ordezkari txikiagoa dela hautematen duten lanbide-mailei dagokienez, desoreka hori desagerrarazteko neurriak hartzea sustatzen du, ahal dela, ordezkari txikiena duen kolektiboa erantzukizun handiagoko lanpostuetan sar dadin sustatuz, beharrezkoak diren trebetasunak eta gaitasunak garatuz, besteak beste.

C.1.6 Bete ezazu jarraian dagoen taula, kontseilarien edo administrazio organoko kideen ordainsari agregatuari dagokionez, ekitaldian irabazia:

ORDAINSARI KONTZEPTUA	BANAKAKOA (MILA EURO)	TALDEA (MILA EURO)
Ordainsari finkoa	1.306	
Ordainsari aldakorra	438	
Dietak	707	

Bestelako ordainsariak		
Orotara	2.451	

C.1.7 Adieraz ezazu goi mailako zuzendaritzako zein kide ez den, aldi berean, kontseilari edo administrazio organoko kide exekutibo, eta zehatz ezazu ekitaldian bere alde sortutako ordainsaria orotara:

Izena edo izen soziala	Kargua
Fernando María Irigoyen Zuazola jauna	Handizkako Negozioaren zuzendari nagusia
José Alberto Barrena Llorente jauna	Erakundeko Finantza eta Taldeko zuzendari nagusia
María Alicia Vivanco González andrea	Partaidetuen zuzendari nagusia
Eduardo Ruíz de Gordejuela Palacio jauna	Xehekkako Negozioaren zuzendari nagusia
Fernando Martínez Jorcano Eguiluz jauna	Baliabideen Erakundeko zuzendari nagusia

Goi mailako zuzendaritzaren ordainsaria orotara (mila euro)	1.618
---	-------

C.1.8 Adieraz ezazu estatutuek edo kontseiluko araudiak aginte mugatua ezartzen duten kontseilarientzat edo administrazio organoko kideentzat:

BAI	EZ
X	

Agintaldirako gehieneko urte kopurua	4
--------------------------------------	---

Kontseilariak euren kargua lau (4) urteko epealdian beteko dutela xedatzen du sozietatearen estatutuen 26. artikulua eta Batzorde Nagusiak egoki irizten dion beste aldiz aukeratu ditzakeela, berriz ere, iraupen bereko epealdietarako.

C.1.9 Adieraz ezazu kontseiluari edo administrazio organoari formulaziorako aurkezten zaizkion urteko norbanakoaren kontuak eta kontu bateratuak alde zurretik ziurtatuta dauden

BAI	EZ
	X

Adieraz ezazu, kasuaren arabera, nor/nortzuk diren erakundeko urteko norbanakoaren kontuak eta kontu bateratuak ziurtatu dituzten pertsonak, kontseiluak edo administrazio organoak formula ditzan:

Izena edo izen soziala	Kargua
Daturik gabe	

Oharrak
Auditoria eta Betetze Batzordeak, bere eginkizunen artean, araututako finantza-informazioaren lanketa-prozesua eta aurkezpenaren gainbegiratzea burutzea du, eta aldeaz aurretik, Administrazio Kontseiluari eman behar dio zenbait konturen berri, besteak beste, KUTXABANK, S.A.k aldizka publikatu behar duen finantza-informazioaren berri.

C.1.10 Azal ezazu, balego, kontseiluak edo administrazio organoak zein mekanismo ezarri duen berak formulatutako norbanakoaren kontuak eta kontu bateratuak Batzar Nagusian edo organo baliokidean Auditoria txostenean salbuespenak dituztela aurkez daitezela ekiditeko

Finantza Zuzendaritzaren eta Barne Auditoriaren Zuzendaritzaren etengabeko hartu-emana dago auditoreekin, kontabilitate-araudia zorrotz aplikatzeko, eta, era beran, Auditoria eta Betetze Batzordeak, bere eginkizunen artean, araututako finantza-informazioaren lanketa-prozesua eta aurkezpenaren gainbegiratzea burutzea du, eta dagozkion harremanak ezartzea kanpoko auditorearekin, kontu-auditoriaren garapen prozesuarekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioa jasotzeko.

C.1.11 Administrazio Kontseiluko idazkaria kontseilaria ere bada

BAI	EZ
	X

Idazkaria kontseilaria ez bada, bete ezazu jarraian dagoen taula:

Idazkariaren izena edo izen soziala	Ordezkarria
Irantzu Irastorza Martínez andrea	

C.1.12 Adieraz itzazu, baleude, zein mekanismo dagoen ezarrita auditorearen, finantza-analisten, inbertsio-bankuen eta kalifikazio-agentzien independentzia babesteko, baita lege-aurreikuspenak praktikan nola inplementatu diren ere.

Auditoria eta Betetze Batzordeak bere eskumenen artean du kanpoko auditoreekiko hartu-emanak izatearena, horien independentzia arriskutan jar dezaketen gaiei buruzko informazioa jasotzeko, Batzordeak azter dezan, baita kontu-auditoriaren garapen prozesuarekin zerikusia duen beste edozein gairi buruzko informazioa jasotzeko ere.

Edozein kasutan, aipatutako Batzordeak urtero jaso beharko du, kontu auditorearen eskutik, bere independentziaren egiaztapen idatzia Sozietatearekiko edo zuzenean nahiz zeharka lotura duten erakundeekiko, baita erakunde hauei auditoreak edo horiei lotutako pertsonak edo erakundeek aurkeztutako edozein motatako zerbitzu gehigarrien eta horien truke jasotako ordainsarien informazioa ere, kontu Auditoriari buruzko legedian eta Auditoriaren arau teknikoetan ezarritakoaren arabera.

Auditoria eta Betetze Batzordeak urtero jaulkitzen du, kontu-Auditoriaren txostena jaulki baino lehen, kontu auditoreen independentziari buruzko iritzia adierazten duen txostena. Txosten horrek, edozein kasutan, kontu-Auditoriaren zerbitzu gehigarriari buruzko iritzia eman beharko du.

Zentzu horretan, 2019ko ekitaldian, Auditoria eta Betetze Batzordeak, Batzordearen aipatutako "kontu auditoria txostena jaulki baino lehen, urtero, kontu auditoreen independentziari buruzko iritzia adierazten duen txosten bat jaulkitzeko" betebeharra arautzen duen Auditoria eta Betetze Batzordearen Araudiaren 3.6 artikuluan xedatutakoa betetzeko, 2019ko otsailaren 26an egindako batzarrean, aho batez erabaki zuen, 2018ko abenduaren 31n itxitako urteko ekitaldiari dagozkion KUTXABANK, S.A.ren urteko kontuak formulatu baino lehen, KUTXABANK, S.A.ren auditorearen independentziari buruzko txostena jaulkitzea. Txosten horretan, besteak beste, honako hauek adieraziko dira:

- (i) Auditoreen independentzia arriskuan jar dezaketen gaiei buruzko informazioa jasotzeko dagozkion harremanak ezarri dira kontu auditorearekin, Auditoria eta Betetze Batzordeak aztertu dezan, eta kontu auditoriaren garapen prozesuarekin zerikusia duen beste edozein gairi buruzko informazioa eta kontu auditoriaren legedian eta auditoriaren arau teknikoetan ezarritako beste edozein gairi buruzko komunikazioak jasotzeko ere.
- (ii) Kontu auditorearekin kontratatutako zerbitzuek jasotako aplikatu behar den araudian independentzia eskakizunak betetzen dituzte.
- (iii) KUTXABANK, S.A.rekiko independentziaren idatzizko baieztapena jaso da kontu auditorearen eskuetatik, Kontu Auditoriaren Legean gai honetan ezarritako eskakizunen arabera. Batzordearen iritziz, ez dago kanpoko auditorearen independentzia zalantzan jarriko duen arrazoi objektiborik.

Gainera, kontu auditorearen independentzia babesteko helburuz, Auditoria eta Betetze Batzordeak, 2019ko urtarrilaren 29ko, otsailaren 26ko, martxoaren 26ko, apirilaren 24ko, maiatzaren 28ko, uztailaren 23ko, irailaren 24ko eta azaroaren 26ko bere batzarretan, Taldearen kanpoko auditorearekin baimendutako eta kontratatutako zerbitzuen jarraipena egin zuen (kontu auditoria ez zirenak) eta/edo zerbitzu berrien emateko baimena ere eskatu zion.

C.2 KONTSEILUKO EDO ADMINISTRAZIO ORGANOKO BATZORDEAK

C.2.1 Aipa itzazu banan-banan administrazio organoak

Organoaren izena	Kide kopurua
Auditoria eta Betetze Batzordea	5
Arriskuaren Kontrol Batzordea	7

Izendapen Batzordea	4
Ordainsari Batzordea	4
Batzorde Betearazlea	8

Oharrak
Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jaunak 2019ko urriaren 29an uko egin zion KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluko kide izateari eta, ondorioz, Administrazio Kontseiluko lehen lehendakariorde eta Batzorde Betearazleko kide izateari, aipaturako data horretatik aurrerako ondorioekin. Ondoren, gaur egun postu huts bat dago betetzeko, eta Europako Banku Zentralaren ebaluazio-prozesuan dago hautagaitza.

C.2.2 Zehaztu Kontseiluko edo administrazio organoko batzorde guztien xehetasunak eta bere kideak, eta osatzen dituzten batzorde betearazlearen kontseilarien, dominikalen, independenteen eta kanpoko beste batzuen proportzioa (kapitaleko sozietatearen izaera juridikoa ez duten erakundeek ez dute kontseilariaren kategoria dagokion laukitxoan adieraziko, eta testuaren atalean bere erregimen juridikoaren arabera kontseilari bakoitzak duen kategoria azalduko dute, eta baita horiek Auditoria, Izendapen eta Ordainsari Batzordeak osatzeko baldintzak zelan betetzen dituzten):

AUDITORIA ETA BETETZE BATZORDEA		
Izena edo izen soziala	Kargua	Kategoria
JOSÉ JULIO ZATÓN SALAZAR JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
MARÍA VICTORIA MENDIA LASA ANDREA	PRESIDENTEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
ROXANA MEDA INORIZA ANDREA	IDAZKARIA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
MARÍA MANUELA ESCRIBANO RIEGO ANDREA	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
JESÚS M ^a HERRASTI ERLOGORRI JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI DOMINIKALA

Kontseilari exekutiboen %	% 0
Kontseilari dominikalen %	% 20
Kontseilari independenteen %	% 80
Kanpoko beste batzuen %	% 0
Bilkura kopurua	11

Azaldu batzorde horrek egotzita dituen eginkizunak, legeak xedatutakoez gain dituenak barne sartuta, kasuaren arabera, eta deskribatu bere organizaziorako eta funtzionamendurako prozedura eta arauak. Eginkizun horietako bakoitzeko, adieraz itzazu bere aktuazio garrantzitsuenak ekitaldian eta nola bete dituen praktikan egotzita duen eginkizun bakoitza, dela legean, dela sozietatearen estatutuetan edo sozietatearen beste akordio batzuetan.

Sozietatearen Estatutuen eta Administrazio Kontseiluaren araudiaren arabera, Administrazio Kontseiluak Auditoria eta Betetze Batzorde bat izendatuko du bere baitan, gutxienez, hiru kide eta, gehienez, bost izango dituena. Auditoria eta Betetze Batzordearen Araudiaren arabera, honako eginkizun hauek izango ditu Batzordeak, besteak beste, KUTXABANK, S.A.ren barne araudian eta aplikagarria den legedian aurreikusita dauden gainerako guztiez gain: (i) Batzar Nagusiari eta Administrazio Kontseiluari, euren eskumeneko arloetan, bere baitan eztabaidatzen diren gaien berri ematea; (ii) KUTXABANK, S.A.ren barne kontrolaren eraginkortasuna gainbegiratzea, barne Auditoria, eta arriskuen kudeaketarako sistemak, baita kontu-auditoreekin eztabaidatzea, Auditoria egitean antzeman diren barne kontrol sistemako ahuldade esanguratsuak; (iii) finantza informazio arautuaren lanketa eta aurkezpen prozesua gainbegiratzea; (iv) Administrazio Kontseiluari proposatzea, Akziodunen Batzar Nagusira eraman ditzan, kontu auditorearen aukeraketa proposamena, izendapena, berraukeraketa eta ordezkapena, aplikagarria den araudiaren arabera; (v) kontu auditoreekin behar diren harremanak ezartzea; (vi) urtero jaulkitzea kontu auditorearen independentziari buruzko txostena; eta (vii) Administrazio Kontseiluari Legean, sozietatearen estatutuetan eta Kontseiluaren araudian zehaztuta dauden gai guztien berri ematea.

Zehazki, Auditoria eta Betetze Batzordeak 2019ko ekitaldian jorratutako gaiei dagokienez, beste batzuen artean, honako hauek aipa daitezke: (i) informazio finantzarioa eta ez finantzarioa eta barne kontroleko mekanismo lotuen arloan: Erakunde Gobernuaren Urteko Txostena, FIBKSen Gainbegiratze-txostenak, kapital-zuriketaren prebentzioaren eta terrorismoaren finantzaketaren inguruko arloko txostenak ("KZPTF"), Portaera Barne Erregelamendua eta Eragiketa Susmagarrien Jakinarazpenari buruzko kontrol-txostena, Araudia Betetzeak egindako kontrolei buruzko aldizkako txostenak, MiFID, Banku Gardentasun Kontrol Txostena, "IPAC's" deritzen Taldearen Bezeroen Aktiboaren Babesari buruzko Txostenak, Kudeaketa Txostena eta Urteko Kontuak (indibidualak eta bateratuak) eta KUTXABANK, S.A. Taldearen Tarteko Finantza Egoera Laburtuen Txostena (Bateratuak),), Informazio Ez Finantzarioaren Egoeraren lanketaren egoera-orria (EINF), etab.; (ii) loturadun atalekiko eragiketen azterketa; (iii) arriskuaren kudeaketa eta kontrola: aipatutako eginkizuna, funtsean, Arriskuaren Kontrolerako Batzordeari dagokion arren, Auditoria eta Betetze Batzordeak gai horrekin zerikusia duten arlo batzuk oharteman zituen, hala nola Zuhurtziazko Garrantzia duen Informazioaren dokumentua; (iv) barne Auditoria arloan: Auditoria eta aholkularitza lanei buruzko hiruhileko txostenak, kapital eta likidezia ebaluazio prozesuen txostenak, Recovery Plana, KUTXABANK, S.A.ren ICAAPn sartu beharreko Barne Auditoriako monografikoa onartzea, eta Barne Auditoria Funtzioaren *reporting-a*; (v) kanpoko auditoreari dagokionez: kontu auditorearen independentziari buruzko aldeko iritzia, KUTXABANK, S.A.ren eta zenbait sozietate partaidetuen auditoreak izendatzeko proposamena, kanpo auditorearekin kontratatutako eta baimendutako zerbitzuen jarraipena eta kanpoko auditorearekin zerbitzu

berriak kontratatzeko baimena (auditoria ez direnak), eta auditore nagusiaren trantsizio-prozesuaren jarraipena; (vi) Barne Auditoria Urteko Planaren eta Araudia Betetze eta Talde Kontrolaren Urteko Planaren onarpena eta jarraipena; eta (vii) gainbegiratzailleek egindako eskaeren jarraipena.

Hau guztia burututako beste jarduerak alde batera utzi gabe, eta horien artean kanpo auditorearekiko harremana nabarmendu da, ondoko helburuetarako: (i) barne kontrolerako sisteman egon litezkeen ahuleziak eztabaidatzea, eta beste alde batetik, (ii) aipatutako kontu-auditore horren independentzia arriskuan jar lezaketen gaien inguruko informazioa jasotzea.

Identifika itzazu kontabilitate arloan, Auditoria arloan edo bietan dituzten ezagupenak eta eskarmentua kontuan hartuta izendatuak izan diren Auditoria eta Betetze Batzordeko kide diren kontseilariak, eta aipatu batzorde horren presidentea noiz izan zen izendatua kargu horretarako.

Eskarmentudun kontseilarien izenak	María Victoria Mendia Lasa andrea
	Roxana Meda Inoriza andrea
Presidentea kargu horretarako izendatua izan zen data	2018ko apirilaren 26a

ARRISKUAREN KONTROL BATZORDEA		
Izena edo izen soziala	Kargua	Kategoria
JOSEBA MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA BUSTINZA JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI DOMINIKALA
JOSÉ JULIO ZATÓN SALAZAR JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
MARÍA VICTORIA MENDIA LASA ANDREA	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
JOSÉ MIGUEL MARTÍN HERRERA JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI DOMINIKALA
JUAN MARÍA OLLORA OCHOA DE ASPURU JAUNA	IDAZKARIA	KONTSEILARI DOMINIKALA
ANTONIO VILLAR VITORES JAUNA	PRESIDENTEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
JORGE HUGO SÁNCHEZ MORENO JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI DOMINIKALA

Kontseilari exekutiboen %	% 0
Kontseilari dominikalen %	% 57,14
Kontseilari independenteen %	% 42,86
Kanpoko beste batzuen %	% 0
Bilkura kopurua	12

Azaldu Batzorde horrek egotzita dituen eginkizunak, legeak xedatutakoez gain dituenak barne sartuta, kasuaren arabera, eta deskribatu bere organizaziorako eta funtzionamendurako prozedura eta arauak. Eginkizun horietako bakoitzeko, adieraz itzazu bere aktuazio garrantzitsuenak ekitaldian eta nola bete dituen praktikan egotzita duen eginkizun bakoitza, dela legean, dela sozietatearen estatutuetan edo sozietatearen beste akordio batzuetan.

Sozietatearen Estatutuen arabera, Administrazio Kontseiluaren araudiaren arabera, besteak beste, honako eginkizun hauek ditu Arriskuaren Kontrol Batzordeak (KUTXABANK, S.A.ren barne araudian eta aplikagarria den legedian aurreikusita dauden gainerako guztiez gain): (i) arrisku mota nagusien aurrean hartzen dituen arriskuak sistematikoki berrikustea; (ii) arriskuaren kudeaketa estrategia eta kontrol politikei buruzko proposamenak aztertzea eta ebaluatzea; (iii) Administrazio Kontseiluari aholkuak ematea, egungo eta etorkizuneko, arriskurako joera globalari buruz, eta eremu honetako strategiari buruz; (iv) Administrazio Kontseiluari laguntza ematea arriskuen strategiaren aplikazioaren zaintzan; (v) Batzordeak berak eta Kontseiluak jaso behar duen arriskuei buruzko informazioaren nolakotasuna, kopurua, formatua eta maiztasuna zehazteko aholkatzea Kontseilua; (vi) KUTXABANK, S.A.ren arrisku-mapa berrikustea eta aztertzea; (vii) bezeroei eskainitako aktiboen eta pasiboen prezioek ea erabat aintzat hartzen duten KUTXABANK, S.A.ren enpresa-eredua eta arrisku-estrategia; eta (viii) Ordainsari Batzordearen eginkizunen kalterik gabe, ea ordainsari-sisteman aurreikusitako pizgarriek, arriskua, kapitala, likidezia eta mozkinen probabilitatea eta aukera aintzat hartzen dituzten aztertzea.

Zehazki, 2019ko ekitaldian, Arriskuaren Kontrol Batzordeak jorratutako gaiak dagokienez, besteak beste, honako hauek nabarmendu behar dira: (i) KUTXABANK Taldearen jarraibide estrategikoak ezartzea arriskuaren kontrol arloan: arriskurako joeraren jarraipen prozesuan parte hartzea eta Aktibo Inproduktiboak Murrizteko 2019ko Plan Estrategikoa eguneratzeko proposamena; (ii) KUTXABANK Taldearen arriskuaren profil globalaren monitorizatzea: kapital autoebaluazio txostena eta likidezia autoebaluazio txostena egiteko eta gauzatzeko prozesuan parte hartzea; arriskuen erakunde agente-koadroaren hiruhileko berrikusketa; kaudimenaren bilakaeraren jarraipena; berreskuratze jardueraren jarraipena; gardentasun ariketaren emaitzen azterketa eta KUTXABANK Taldearen negozio-ereduaren azterketa eta 2019-2023 epealdirako egindako Finantza Proiekzioen azterketa; (iii) kudeaketa azpiegituraren eta arrisku-mota nagusien aurrean Taldeak hartzen duen arrisku-mailaren berrikusketa: Arriskuen Erakunde Mapa eguneratzea; arrisku mota nagusien aurrean KUTXABANK Taldearen arrisku-mailaren bilakaerari buruzko informazio monografikoaren jarraipena; eta arriskuen kudeaketarako eskuliburuaren lanketa eta eguneratze prozesuan parte hartzea (besteak beste, Likidezia Arriskua Kudeatzeko Politiken Eskuliburua eta Merkatu Arriskua Kudeatzeko Politiken Eskuliburua eguneratzea); (iv) Recovery Plana lantzeko eta gauzatzeko prozesuan parte hartzea; (v) zuhurtziazko garrantzia duen informazioaren lanketa eta gauzatzeko prozesuan parte hartzea; (vi) zuzendaritza-taldearen ordainsari aldakorraren 2019rako ereduaren azterketa; eta (vii) KUTXABANK Taldeak zehaztutako Prezioen Kudeaketa Prozeduren jarraipena.

IZENDAPEN BATZORDEA		
Izena edo izen soziala	Kargua	Kategoria
JOSÉ ANTONIO RUIZ-GARMA MARTÍNEZ JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
JOSU DE ORTUONDO LARREA JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI DOMINIKALA
MARÍA MANUELA ESCRIBANO RIEGO ANDREA	PRESIDENTEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
ALEXANDER BIDETXEA LARTATEGI JAUNA	IDAZKARIA	KONTSEILARI DOMINIKALA

Kontseilari exekutiboen %	% 0
Kontseilari dominikalen %	% 50
Kontseilari independenteen %	% 50
Kanpoko beste batzuen %	% 0
Bilkura kopurua	7

Azaldu Batzorde horrek egotzita dituen eginkizunak, legeak xedatutakoez gain dituenak barne sartuta, kasuaren arabera, eta deskribatu bere organizaziorako eta funtzionamendurako prozedura eta arauak. Eginkizun horietako bakoitzeko, adieraz itzazu bere aktuazio garrantzitsuenak ekitaldian eta nola bete dituen praktikan egotzita duen eginkizun bakoitza, dela legean, dela sozietatearen estatutuetan edo sozietatearen beste akordio batzuetan.

Sozietatearen Estatutuen eta Administrazio Kontseiluaren araudiaren arabera, Izendapen Batzordeak, besteak beste, proposamen eta informazio ahalmen orokorrak izango ditu, kontseilarien eta goi-zuzendarien izendapen eta kargu-uzte arloan.

Izendapen Batzordearen araudiaren arabera, besteak beste, honako eginkizun hauek izango ditu Batzordeak (KUTXABANK, S.A. ren barne araudian eta aplikagarria den legedian aurreikusita dauden gainerako guztiez gain): (i) Kontseilua osatzeko jarraitu beharreko irizpideak formulatzea eta berrikustea; (ii) kontseilariak izendatzeko eta berrautapenerako proposamenak formulatzea; (iii) goi-zuzendaritzako kideen izendapenen eta kargu-uzteen berri ematea; (iv) Egokitasuna Ebaluatzeko Politika proposatzea Kontseiluari; (v) aipatutako Politikari lotutako ebaluazio-sistemak proposatzea Kontseiluari; (vi) aipatutako politika hori zuzen aplikatzen den gainbegiratzea; (vii) Kontseiluko kideen eta hautagaien eta aipatutako politika horrekin lotura duten gainontzeko kolektiboen egokitasuna ebaluatzea; (viii) zehaztutako politika horri lotutako kolektiboen prestakuntza-planak proposatzea Kontseiluari; (ix) ordezkari txikiena duen sexurako Kontseiluan ordezkari helburua ezartzea; (x) Kontseiluaren ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren oreka ebaluatzea, eta izendapen zehatzak egiteko behar diren gaitasun eta

eginkizunen deskripzioa egitea; eta (xi) Administrazio Kontseiluaren egitura, neurria, osaketa eta jarduera aldiro ebaluatzea. Era berean, KUTXABANK, S.A.ren presidentearen, kontseilari delegatuaren eta administrazio kontseiluko gainerako kideen ondorengotza planean Izendapen Batzordeari honako hau dagokiola ezartzen da: (xii) urtero berrikustea ondorengotza planaren edukia, berrikusketa horren berri ematea Administrazio Kontseiluari eta, kasuaren arabera, dagozkion aldaketak proposatzea.

Zehazki, 2019ko ekitaldian Izendapen Batzordeak jorratutako gaietako dagokienez, besteak beste, honako hauek nabarmendu behar dira: (I) Francisco Javier García Lurueña jauna Administrazio Kontseiluko kide eta kontseilari ordezkari eginkizunean berritzeko proposamena egitea, baita Iturbe jaunak aurkeztutako ukoaren ondoren sortutako hutsunea betetzeko proposatutako hautagaiarena ere; (ii) aurretik zeuden kontseilarien egokitasuna berrestea, baita Iturbe jaunak aurkeztutako ukoaren ondoren sortutako postu hutsa betetzeko proposatutako kontseilariaren egokitasuna ebaluatzea ere; (iii) Administrazio Kontseiluaren ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren arteko orekaren urteko ebaluazioa; (iv) Administrazio Kontseiluaren ezagutza-orekaren ebaluazio puntuala, Iturbe jaunak aurkeztutako ukoa betetzeko proposatutako hautagaia izendatuz gero; (v) prestakuntza-planaren proposamena; (vi) Gobernu Organoen Aholkularitza Juridikoaren eta Idazkaritza Teknikoaren zuzendariaren egokitasuna ebaluatzea; (vii) hurrengo ekitaldirako Kontseiluan aurreikusitako epemugen jarraipena; (viii) Zuzendariordetza nagusi berriak izendatzeko proposamena luzatzea; (ix) Kutxabank Taldeko funtsezko langileentzako oinordetza-plana eguneratzeko proposamena egitea; (x) Barne Kontroleko Eginkizunen arduradunak izendatzeko, kargutik kentzeko eta haien jarduna baloratzeko prozedura berriaren proposamena egitea; (xi) Gaitasunen Matrizea onartzeko proposamena egitea; (xii) kontseilari eta zuzendari nagusi edo parekatuen izendapen- eta ebaluazio-jardueren txostena arrazoitzea; eta (xiii) 2018ko jardura-txostena oharrematea, KUTXABANK Taldeko langile giltzarrien Ondorengotza Planari dagokionez.

ORDAINSARI BATZORDEA		
Izena edo izen soziala	Kargua	Kategoria
JOSU DE ORTUONDO LARREA JAUNA	IDAZKARIA	KONTSEILARI DOMINIKALA
ROXANA MEDA INORIZA ANDREA	PRESIDENTEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
ANTONIO VILLAR VITORES JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
ALEXANDER BIDETXEA LARTATEGI JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI DOMINIKALA

Kontseilari exekutiboan %	% 0
Kontseilari dominikalen %	% 50
Kontseilari independenteen %	% 50
Kanpoko beste batzuen %	% 0

Azaldu Batzorde horrek egotzita dituen eginkizunak, legeak xedatutakoez gain dituenak barne sartuta, kasuaren arabera, eta deskribatu bere organizaziorako eta funtzionamendurako prozedura eta arauak. Eginkizun horietako bakoitzeko, adieraz itzazu bere aktuazio garrantzitsuenak ekitaldian eta nola bete dituen praktikan egotzita duen eginkizun bakoitza, dela legean, dela sozietatearen estatutuetan edo sozietatearen beste akordio batzuetan.

Sozietatearen Estatutuen eta Administrazio Kontseiluaren araudiaren arabera, Ordainsari Batzordeak, besteak beste, proposamen eta informazio ahalmen orokorrak izango ditu, ordainsari arloan.

Ordainsari Batzordearen araudian xedatutakoaren arabera, besteak beste, honako eginkizun hauek izango ditu Batzordeak (KUTXABANK, S.A.ren barne araudian eta aplikagarria den legedian aurreikusita dauden gainerako guztiez gain): (i) Administrazio Kontseiluaren ordainsari konpentsazio-sistema proposatzea; (ii) kontseilari exekutiboaren ordainsariaren, eskubideen eta konpentsazioen hedapena eta zenbatekoa zehaztea; (iii) Administrazio Kontseiluari proposatzea goi mailako zuzendarien ordainsari-politika; (iv) KUTXABANK, S.A.ren ordainsari-politika betetzen dela zaintzea; eta (v) ordainsariaren gardentasuna zaintzea.

Zehazki, 2019ko ekitaldian Ordainsari Batzordeak jorratutako gaiak dagokienez, besteak beste, honako hauek nabarmendu behar dira: (i) zuzendaritza taldearen 2018ko ordainsari aldakorraren emaitza eta 2019rako ordainsari proposamena (ii) aditu independentearen ebaluazioa, KUTXABANK Taldearen ordainsari politikak araudi markoari dion egokitasun mailari buruz; (iii), identifikatutako kolektiboaren berrikusketa, arrisku profilean intzidentzia esanguratsua duena, KUTXABANK Taldearen eta sozietate matrizen mailan, zuhurtzia araudi markoaren arabera; (iv) Kutxabank Taldearen Ordainketa Politikako Esparru Korporatiboa berrikustea; (v) zuzendariorde nagusi izendatzeagatiko ordainsariak berrikusteko proposamena; (vi) zuzendaritza-taldearen ordainsari aldakor geroratuaren proposamena, ex post ebaluazioa eta likidazioa, hala badagokio; (vii) KUTXABANK Taldearentzako epe luzerako ordainsari aldakorreko sistemaren proposamena; (viii) Aholkularitza Juridikoko eta Gobernu Organoen Idazkaritza Teknikoko zuzendariaren ordainketa-proposamena; eta (ix) Xehekako Negozioko zuzendari nagusiarekin goi-zuzendaritzako kontratua formalizatzeko proposamena.

BATZORDE BETEARAZLEA		
Izena edo izen soziala	Kargua	Kategoria
JOSÉ ANTONIO RUIZ-GARMA MARTÍNEZ JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
FRANCISCO JAVIER GARCÍA LURUEÑA JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI EXEKUTIBOA
JOSEBA MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA BUSTINZA JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI DOMINIKALA

GREGORIO VILLALABEITIA GALARRAGA JAUNA	PRESIDENTEA	KONTSEILARI EXEKUTIBOA
JOSÉ MIGUEL MARTÍN HERRERA JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI DOMINIKALA
JUAN MARÍA OLLORA OCHOA DE ASPURU JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI DOMINIKALA
JORGE HUGO SÁNCHEZ MORENO JAUNA	KIDEA	KONTSEILARI DOMINIKALA

Kontseilari exekutiboen %	% 28,57
Kontseilari dominikalen %	% 57,14
Kontseilari independenteen %	% 14,29
Kanpoko beste batzuen %	% 0
Bilkura kopurua	46

Oharrak
Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jaunak 2019ko urriaren 29an uko egin zion KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluko kide izateari eta, ondorioz, Administrazio Kontseiluko lehen lehendakariorde eta Batzorde Betearazleko kide izateari, aipatutako data horretatik aurrerako ondorioekin. Ondoren, gaur egun postu huts bat dago betetzeko. Horregatik, kontseilari exekutiboen, dominikalen, independenteen eta kanpoko beste kontseilari batzuen proportzioa aldi baterakoa da (orotarako kopurua 7 balitz bezala kalkuluan oinarrituta), postu huts hori bete arte.

Azaldu batzorde horrek egotzita dituen eginkizunak, eta deskribatu bere organizaziorako eta funtzionamendurako prozedura eta arauak. Eginkizun horietako bakoitzeko, adieraz itzazu bere aktuazio garrantzitsuenak ekitaldian eta nola bete dituen praktikan egotzita duen eginkizun bakoitza, dela legean, dela sozietatearen estatutuetan edo sozietatearen beste akordio batzuetan.

<p>Sozietatearen Estatutuen eta Administrazio Kontseiluaren araudiaren arabera, Batzorde Betearazleak Administrazio Kontseiluak eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak bete edo burutuko ditu.</p> <p>Aldiro, (i) KUTXABANK, S.A.ren zuzendaritzan eskuordetutako eginkizunen multzotik kanpo geratzen diren finantza-eragiketak Batzorde Betearazlearen onarpenaren mende daude; (ii) merkatuen bilakaeraz eta KUTXABANK, S.A.ren diruzaintzaren egoeraz informazioa ematen zaio, hala badagokio, likideziaren kudeaketaren inguruan behar diren akordioak hartuta (iii) higiezinaren inguruan onartutako eragiketez jakinaren gainean jartzen da, eta bere onarpena eskatzen zaio KUTXABANK, S.A.ren</p>
--

zuzendaritzari eskuordetutako eginkizunen multzotik kanpo geratzen diren higiezin salmenta edo alokairu eragiketentzat; eta (iv) kontuan hartzen dira, eta hala badagokio, behar diren azalpenak ematen dira, gertatu diren eta KUTXABANK, S.A.ren jarduerarentzat interes berezia izan dezaketen arau berrien inguruan. Hori guztia, eskuordetutako bere eginkizunak betetzean Batzordeari helarazten zaizkion bestelako kontuak alde batera utzita.

D LOTURADUN ERAGIKETAK ETA TALDE BARNEKO ERAGIKETAK

D.1 Zehatz itzazu erakundea edo bere taldeko erakundeen eta erakundeko akziodunen, kooperatibakideen, eskubide dominikalen titularren edo erakundearen mota bereko beste edozeinen arteko eragiketak:

Akziodunaren/bazkide esanguratsuen izena edo izen soziala	Bere taldeko sozietatearen edo erakundearen izena edo izen soziala	Harremana-mota	Eragiketa-mota	Zenbatekoa (mila euro)
Daturik gabe				

Oharrak

Urteko Finantza Egoeretan eta Tarteko Finantza Egoera Laburtuetan, denak publikoaren eskura KUTXABANK, S.A.ren erakunde webgunean, loturadunekin egindako transakzioak banakatzen dira eta, bereziki, erakundearen edo taldeko erakundeen eta akziodunen artean egindakoak.

Edozein kasutan, akziodunekin egindako garrantzizko eragiketen artean, honakoak aipatu behar dira, dibidendu banaketa, akziodun bakoitzarekin indarrean dauden zerbitzuak emateko kontratuak eta banku-produktuak kontratatzetik eratorritako finantza gastuak eta sarrerak, Sozietatearen ohiko jardun edo trafikoaren parte direnak, bere helburu eta baldintzei dagokienez.

D.2 Zehatz itzazu erakundea edo bere taldeko erakundeen, eta administratzaile edo administrazio organoko kideen, edo erakundeko zuzendarien artean egindako eragiketak:

Administratzaileen edo zuzendarien izena edo izen soziala	Loturadun atalaren izena edo izen soziala	Lotura	Eragiketa-mota	Zenbatekoa (mila euro)
Daturik gabe				

Oharrak
Urteko Finantza Egoeretan eta Tarteko Finantza Egoera Laburtuetan, denak publikoaren eskura KUTXABANK, S.A.ren erakunde webgunean, loturadunekin egindako transakzioak banakatzen dira eta, bereziki, erakundeko administrazio-organoko kideekin edo zuzendariekin egindakoak. Edozein kasutan, operazioak Sozietatearen jardun edo trafiko arruntarenak dira eta merkatu egoeretan egiten dira.

D.3 Zehatz itzazu talde barneko eragiketak

Bere taldeko erakundearen izen soziala	Eragiketaren deskripzio laburra	Zenbatekoa (mila euro)
Daturik gabe		

Oharrak
Urteko Finantza Egoeretan eta Tarteko Finantza Egoera Laburtuetan, denak publikoaren eskura KUTXABANK, S.A.ren erakunde webgunean, loturadunekin egindako transakzioak banakatzen dira eta, bereziki, talde barneko eragiketak. Edozein kasutan, talde bateratu bereko erakundeen arteko operazioen kasuan, finantza-egoera bateratuen lanketa-prozesuan deuseztatu egin dira. Era berean, operazioak erakundeen ohiko jardun edo trafikoarenak dira, helburua eta baldintzei dagokienez.

D.4 Zehatz itzazu erakundea edo bere taldea, eta bere kontseilarien edo administrazio kontseiluko kideen edo zuzendarien arteko balizko interes-gatazkak antzemateko, zehazteko eta ebazteko ezarritako mekanismoak.

Legedian ezarritakoak, eta bereziki, Kapital Sozietateen Legearen 229 eta 230 artikuluetan ezarritako komunikazioak.

Horri dagokionez, KUTXABANK, S.A.k badu, Interes Gatazken Politika Orokorra, Administrazio Kontseiluak onartua, harremanetan, zerbitzuetan, jardueretan edo transakzioetan gertatzen diren interes gatazka errealak edo balizkoak identifikatzeko, kudeatzeko eta gutxitzeko markoa ezartzea helburu duena, parte hartzen duten alderdien arabera, eta horien artean, Erakundea eta Administrazio Kontseiluko kideak, akziodun esanguratsuak eta goi-mailako zuzendariak daude.

Era berean, bereziki, interes gatazkei eta kontseilariari, akziodun esanguratsuei eta goi mailako zuzendariari lotutako eragiketei buruzko Araudia du, Administrazio Kontseiluak onartua, eta aplikagarria den legediaren eta KUTXABANK, S.A.ren sozietatearen estatutuen markoan, honako bi kasu hauetan aplikagarria den prozedura zehaztea helburu duena:

- (i) KUTXABANK, S.A.ren edo KUTXABANK Taldea osatzen duen edozein sozietateren interesa ("Taldea" Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako terminoetan ulertuta) eta bakoitzaren administradoreen (KUTXABANK, S.A.ren proposamenez izendatuak izan direnak) eta/edo KUTXABANK, S.A.ren kontseilarien interes pertsonala, zuzena nahiz zeharkakoa, -

eta/edo haiei lotutako pertsonena-, edo interes gatazken arauen mendean dauden pertsonena gatazkan sartzen diren egoeretan;

- (ii) KUTXABANK Taldearen erakundeen interesa, zuzena nahiz zeharkakoa, gatazkan sartzen diren egoeretan;
- (iii) KUTXABANK Taldeak KUTXABANKeko kontseilariekin -eta/edo eurei lotutako pertsonekin-, interes gatazken arauen mendean dauden pertsonekin edo Akziodun Esanguratsuekin egiten dituen transakzioetan.
- (iv) KUTXABANK Taldearen erakundeen artean egiten diren transakzioetan edo izenpetzen diren akordioetan.

Aipatutako Araudiak, era berean, Administrazio Kontseiluaren Araudian ezarritakoa garatzen (29. artikulutik 34.era) eta Balore Merkatuaren eremuan Portaera Barne Erregelamenduan ezarritakoaren osagarri da. Aipatutako Erregelamenduak zehazki arautzen ditu, eremu horri dagokionez, Administrazio Kontseiluko eta Zuzendaritza Batzordeko kideek, nahiz KUTXABANK, S.A.ko gainontzeko zuzendariek eta enplegatuek bete behar dituzten portaera arauak.

E ARRISKUEN KONTROL ETA KUDEAKETA SISTEMAK

[Oharra: epigrafe hauetarako onartutako karaktere-kopurua mugatua da eta, horregatik, sartzen ez den testua G atalean osatuko da, urtero bezala]

E.1 Azal ezazu erakundearen Arriskuen Kontrol eta Kudeaketa Sistemaren irismena.

Definizioz, KUTXABANK, S.A.ren Arriskuak Kudeatzeko Sistema KUTXABANK kreditu-erakundearen talde kontsolidagarri osoari aplikatu dakiok zehazki perimetroan, bai eta haren tipologia korporatiboan identifikatutako arrisku-mota guztiei ere.

Taldeko arrisku motaren eta gizartearen konbinazio bakoitzerako sistema horretan ezarritako jarraibideen aplikazioaren intentsitatea kasu bakoitzerako identifikatutako garrantzi-mailaren arabera izango da, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz.

KUTXABANK, S.A.ren Arriskua Kudeatzeko Esparrua funtsezko hiru zutaberen bidez garatzen da:

- Taldearen arriskuak kudeatzeko estrategia osatzen duten ildo nagusiak Arriskurako Joeraren Esparruan ezartzen dira. Esparru horren bidez, KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluak bere helburu estrategikoak formulatzen ditu Taldearen arrisku-profil globalari dagokionez (helburu generikoa, helburu kualitatiboak, helburu kuantitatiboak), baita arriskua kudeatzeko politika orokorrak ere.
- Bestalde, Taldeko arriskuaren barne-gobernantzarekin lotutako alderdirik garrantzitsuenak Arriskua Kudeatzeko Barne Gobernuaren Esparruan finkatzen dira. Dokumentu horretan oinarritutako gaiak zehazten dira, hala nola arriskuen tipologia korporatiboa, arrisku mota bakoitzaren kudeaketari buruzko erantzukizun generikoen esleipena, Arriskuak Kudeatzeko Funtzioaren zeregina edo merkatuari informazioa emateko politika, besteak beste.
- Azkenik, arrisku mota garrantzitsuenei berariaz aplikatu dakizkiekeen kudeaketa-politikak Kudeaketa Politiken Eskuliburuetan ezartzen dira.

E.2 Identifika itzazu Arriskuen Kontrol eta Kudeaketa Sistema egiteaz eta egikaritzeaz arduratzen diren organoak.

Taldearen arrisku-profil globalaren kudeaketari buruzko azken erantzukizuna KUTXABANK, S.A.ren

Administrazio Kontseiluari dagokio.

Aipatutako erantzukizuna gauzatzeko, bereziki estrategiaren, gobernantzaren eta politiken esparruan, Administrazio Kontseiluak Arriskua Kontrolatzeko Batzordearen aholkularitza du, eta eragiketa zehatzak onartzeko, berriz, bere Batzorde Betearazleari ahalmen jakin batzuk eman zaizkio.

Taldearen arrisku-profil globalaren kudeaketaren arloan KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluari esleitutako eginkizunak haren funtzionamendu-erregelamenduan zehazten dira, eta Bankuaren web-orri korporatiboan dago argitaratuta.

Arrisku mota desberdinen kudeaketaren gaineko erantzukizun exekutiboari dagokionez, eskala exekutiboko hainbat batzorderi esleituta dago, arriskuaren izaeraren arabera (Zuzendaritza Batzordea, Arrisku Batzordea, COAP, Arrisku Operazionalako Batzordea ...). Batzorde horiek kontrol-esparru desberdinei buruzko erabakiak hartzen dituzte beren eskumenen barruan daudenean, edo Administrazio Kontseiluari edo/eta, bestela, batzordeetako bati aurkezten dizkiote.

Bestalde, Arriskuak Kudeatzeko Funtzioak aktiboki parte hartzen du Taldearen arrisku-profil orokorrerako garrantzitsuenak diren erabakiak hartzeko prozesuan, eta arrisku mota desberdinen kontrol-esparruak Administrazio Kontseiluak formulatutako jarraibide orokorrekin koherenteak izan daitezzen zaintzen du.

Arriskua Kudeatzeko Barne Gobernuaren Esparruak berariaz esleitzen die Bankuaren antolaketa-arlo jakin batzuei arrisku-mota desberdinen kontrol-esparruak koordinatzeko erantzukizuna, hargatik eragotzi gabe kontrol-esparru bakoitzaren berariazko funtzioak hainbat arlori esleituta egotea.

Azkenik, Barne Auditoriaren Funtzioak arriskuen kudeaketako, barne-kontrolako eta gobernuko prozesuen kalitateari eta eraginkortasunari buruzko aseguramendu independentea ematen du.

E.3 Adieraz itzazu negozioaren helburuak lortzeko eragina izan dezaketen arrisku nagusiak.

KUTXABANK Taldeak hogeita hiru kategoriatan sailkatu dituen arriskuen erakunde-tipologia ezarri du. Jarrian esanguratsuenak aipatu eta definituko ditugu:

Kreditu-arriskua: bezeroek (batez ere, partikularrek, enpresek, administrazio publikoek eta irabazi asmorik gabeko instituzioek) ordainketa betebeharrak ez betetzearen ondorioz, balio ekonomikoko galeretan erortzeko aukera. Bezeroek dituzten ordainketa betebeharrak horiek erakundeak merkaturatzen duen edozein banku produktutik eratorritakoak izan litezke, tresna eratorriekin egindako eragiketak barne. Kategoriatik kanpo geratzen dira berariaz, finantza-erakundeekin hartutako kreditu-arriskuak.

Kontra-alderdi arriskua: balio ekonomikoko galeretan erortzeko aukera, banku-tresnetara sartutako finantza-erakundeek ordainketa betebeharrak ez betetzearen ondorioz, tresna eratorrien bidez egindako eragiketak barne. Gainera, kudeaketa eremu horrek likidazio-arriskua hartzen du barne berariaz (trukaturako fluxuak erabat aldi berekoak ez diren transakzioetara lotuta) eta berariaz uzten du kanpo arrisku igoerlea (titulu baten igoerle pribatuak ez ditu barne dituen eskubideak zaintzen).

Arrisku subiranoa: balio ekonomikoko galeretan erortzeko aukera, nazioaz gaindiko erakundeek edo, arriskua herrialdea ondorioetarako, Espainiako Bankuaren 4/2017 Zirkularrean 1. Taldean sailkatutako estatuak jaulkitako zorraren titulu ordezkatzailaetan sartutako zorren ez ordainketen, atzerapenen edo bernegoziaketen ondorioz.

Interes-tasen egitura arriskua: interes-tasen aurkako mugimenduek finantza-marjinak lortzeko oraingo eta etorkizuneko gaitasunean duten eraginaren ondorioz balio ekonomikoko galerak izateko aukera. Arrisku mota horren aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira *trading* jarduerari atxikitako posizioak.

Likidezia arriskua: bere kokapen estrategikoan, finantzaketaren kostuan edo bere aktiboen eta pasiboen epemugen arteko denbora-desfasetik eratorritako ordainketa-konpromisoei erantzuteko gaitasunean izandako eraginaren ondorioz balio ekonomikoko galerak izateko aukera.

Merkatuko arriskua: Finantza-arriskuko faktore nagusien (interes-tasak, truke-tasak, kotizazioak, hegazkortasunak eta salgaien prezioak) aurkako mugimenduek beren zorroetan duten kotizazio-balioen eta tresna eratorrien (inbertsiokoak eta/edo negoziaziozkoak) inpaktuaren ondorioz balio ekonomikoko galerak izateko aukera.

Eragiketa arriskua: bere prozesuetan, sistemetan edo pertsonen hutsegiteak, akatsak, urritasunak edo egokitze-ezak direla-eta, baita Kanpoko gertaeren ondorioz ere, balio ekonomikoko galerak izateko aukera. Definizio horretatik kanpo geratzen da, berariaz, arrisku estrategikoa.

Arrisku teknologikoa: balio ekonomikoko galeretan erortzeko arriskua, prozesuetan, sistemetan, sareetan, eta abarretan gertatutako edo langileen akats, hutsegite, urritasun edo desegokitasunen ondorioz, edo informazio eta komunikazioen teknologiek (IKT) zerikusia duten kanpoko gertakizunen ondorioz.

Ospe-arriskua: balio ekonomikoko galeretan erortzeko aukera, Taldeko interes-talde nagusiek beraien ospe korporatiboak okerrera egin duela ustearen ondorioz.

Aseguru-jardueraren arriskua: Taldeak kontrolatzen dituen aseguru-filialek egindako aseguru-jarduerari lotutako balio ekonomikoko galerak izateko aukera.

Higiezinaren jardueraren arriskua: balio ekonomikoko galeretan erortzeko aukera, Taldeak kudeatzen dituen filial higiezinekin eta edozein dela haien jatorria eta/edo helburua, Taldearen balantzean agertzen diren aktibo higiezin guztiekin lotutako kontrako inguruabarren ondorioz.

Sozietate partaidetuen arriskua: balio ekonomikoko galeretan erortzeko aukera, Bankuarekin jarduerarekin zerikusi zuzena ez duten sozietateetan dauden akzio partaidetzen narriaduraren ondorioz, eta horietan duen presentziak ez dienean erantzuten arrazoi operatiboei, ezta bere *trading* jarduerari ere. Kudeaketa arlo horrek kanpo uzten ditu Taldeak kontrolatzen dituen partaidetzei lotutako arriskuak, banku, aseguru eta/edo higiezinaren jardueretan ari direnak.

Arrisku estrategikoa: balio ekonomikoko galeretan erortzeko aukera, jarduera garatzen duen merkatuetan duen posizio estrategikoan narriaduraren ondorioz.

Bankuko negoziaren arriskua: balio ekonomikoko galeretan erortzeko aukera, bere bezeroekiko harremanetik behin eta berriz marjinak lortzeko gaitasunean eragiten duen Taldearen posizio komertzialaren narriaduraren ondorioz.

Kontzentrazio arriskua: balio ekonomikoko galeretan erortzeko aukera, zenbait jarduera-sektoretan, eremu geografikoetan edo talde ekonomikoetan duen inbertsio-mailak (kredituzkoa, finantzarioa edo beste edozein) Bankuaren gehiegizko mendetasuna duela ezartzen badu, aipatutako elementuetako baten bilakaerari dagokionez.

E.4 Identifika ezazu Erakundeak arriskuaren tolerantzia mailak dituen.

KUTXABANK, S.A.ren administrazio-kontseiluak Arriskurako Joera Esparruaren bidez egiten ditu arriskuaren kudeaketaren arloko zuzentarau estrategikoak. Dokumentu hori egiteko prozesua Arriskuen Kontrol Orokorreko sailak koordinatzen du eta barne hartzen ditu funtzio betearazlea, Zuzendaritza Batzordearen bidez, nahiz gobernu-organismoak berak. Hor, protagonismo berezia du Arriskuen Kontrol Batzordeak.

KUTXABANK Taldearen Arriskurako Joera Esparruaren arabera, Taldeak arrisku-profil global ertain-baxua aurkeztu nahi du, bere jarduera luzaroan mantentzeko helburua bermatzen duena, eta beraz, baita erakundeari egiten dion ekarpena ere.

Aipatutako arrisku-profil ertain-baxua lortzeko, Taldeak arrisku mota guztien aurrean politika zuhurrean, barne-gobernantza eta giza baliabide nahiz baliabide materialen arabera arrisku-kudeaketaren azpiegitura egokian eta tokiko xehekako banka eredurako egokia den kapitaleko eta likideziako funtsean oinarrituko da.

Taldeak adierazpen generiko honi beste helburu nagusi eta zehatz batzuk gaineratzen dizkio, bai kualitatiboak, bai kuantitatiboak. Helburu kuantitatiboak arrisku-adierazle multzo nagusiarri lotuta daude. Xede estrategikoak dira, Taldeak bere negozio ereduarekin eta aurkeztu nahi duen arrisku-

profilarekin koherentetzat jotzen dituenak, eta epe ertain/luzerako bidean erreferentzia izango direnak, ziklo ekonomikoaren baldintza arruntetan, eta epe zehatz bati lotuta ez daudenak.

Arriskurako Joera Esparruan zehaztutako arrisku-adierazle multzo nagusia 24 adierazlek osatzen dute. Haietako bakoitzak jarraipen-eremu maila du (helburua, behaketa eta alerta atalaseak eta berreskuratze atalaseak), hauen betetze mailaren eboluzioa erraz ikus dadin, baita kasu bakoitzean aplikagarria den kudeaketa estiloa ere.

E.5 Adieraz ezazu zein arrisku gauzatu den ekitaldian.

Taldeak dituen arriskuen gauzatzea maila baxuenetan kokatu zen Kutxabank sortu zenetik, eta emaitza kontuan izan zuen eragina oso moderatua izan zen.

Taldeak 2019an erregistratutako gauzatze garrantzitsuenak higiezinaren arloko bere aktiboen zorrotik etorri ziren, bereziki esleitutako aktiboen zorrotik, nahiz eta 2018an erregistratutakoekin alderatuta beheranzko joera duten.

Garrantzi txikiagoarekin, operazio-galeren igoera aipatu behar da, sektoreko auzien gehikuntza orokorrekin bat etorriz.

Era berean, interes-tasa ohiz kanpokoak baino baxuagoen iraunkortasunari lotutako zailtasunen jarraipena gogoratu behar da, presio are handiagoa gehitzen baitute banku negozioaren merkataritza marjinen gainean.

Kreditu-arriskuari dagokionez, ziklo ekonomikoaren hedapen-faseari eusteak, Taldeak egindako kudeaketekin batera, bere berankortasun-tasa % 2,98an kokatzea ahalbidetu du (2018aren itxierako % 3,86aren aldean). Bilakaera positibo horrek eragin txikia izan du kreditu-saneamendu garbiei lotutako Taldearen emaitza-kontuan.

Oro har, Taldeak dituen arriskuen gauzatze maila beherakorrak erregistratu direnez, eta beste arlo batzuetan lortutako aurrerapenekin batera, errentagarritasun altuagoa lortzea ahalbidetu dute.

Taldeak argitaratutako urteko kontuek emaitzetan eta/edo ondarean eragin esplizitua izan duten arriskuen gauzatzei buruzko informazio xehatua jasotzen dute.

E.6 Azal itzazu erantzun eta gainbegiratze planak, erakundearen arrisku nagusietarako, baita administrazio kontseiluak agertzen diren erronka berriei erantzuna ematen diela ziurtatzeko konpainiak jarraitzen dituen prozedurak ere.

KUTXABANK Taldeko gobernu-organismoek beraien arrisku nagusiak monitorizazio sistema bat dute, eta tresna hauetaz osatuta dago:

- Arriskuen Mapa Korporatiboa: urtero egiten da, eta Taldeak izan ditzakeen arrisku mota nagusiak identifikatu, haien garrantzi-maila ebaluatu eta azpi arrisku-mailako arrisku nagusien gaineko informazio zehatza jasotzen du.
- Arriskuen Agintari Talde Korporatiboa: hiru hilez behin hainbat arrisku-adierazleri buruzko informazio eguneratua ematen du. Horrez gain, adierazle horien kalkuluari buruzko euskarri-txostenak, bere bilakaerari buruzko sail historikoak eta arrisku-mailaren arabeko kategoriak ere barne hartzen ditu.
- Arrisku-mota garrantzitsuenei buruzko txosten monografikoak: bidali eta Arriskuaren Kontrol Batzordearen aurrean azaltzen dira, bakoitzaren garrantziarekiko proportzionalak diren maiztasun-mailen arabera.

Horrela osatutako monitorizazio-sistemari esker, gobernu-organismoek etengabe dute Taldearen arrisku-profil orokorraren bilakaerari eta kasu bakoitzean egindako zuzentarau estrategikoetan gertatutako desbideratzei buruzko informazio etengabe eguneratua.

Arriskuen gauzatze-mailak maila desiragarriak gainditzen dituen kasuetarako aurreikusitako mekanismoei dagokienez, Taldeak badu, kudeaketa autonomo arruntaren barruan, zenbait arrisku-adierazlek Arriskurako Joera Markoan ezarritako mugak gainditzen dituzten kasuan, jarduera-protokolo jakin batzuk aktibatuko direla bermatzen duen gobernantza bat. Protokolo horien helburua, hala badagokio, gobernu-organoei adierazle batek edo batzuek izandako narriaduraren berri ematea, gertatutakoa azaltzen duen kausa-analisi bat egitea eta egoera bideratzeko konpontze-plan bat ezartzea da.

Arrisku-adierazleen narriadura maila larriago batzuetara heltzen bada, kudeaketa autonomo bikaina egin bada ere, Bideragarritasun Plan bat (Recovery Plan) izan behar dute Europako finantza erakundeek. Plan horrek, bikaintasun-maila hori islatzen duen gobernantza bat aktibatzea aurreikusteaz gain, Taldeari bere baliabideen bidez egoera bideratzeko aukera ematen dioten zenbait suspertze neurri ere gauzatu beharko ditu.

Era berean, Taldeak baditu zenbait kontingentzia-plan berariazkoak, negozioaren jarraipena bermatzera bideratuak, zenbait baliabide kritiko eskuratzeko zailtasunen bat izanez gero (likidezia, sistemak eta komunikazioak, eraikinak eta pertsonak...).

F BARNE KONTROLEKO SISTEMAK ETA ARRISKUEN KUDEAKETA FINANTZA INFORMAZIOAREN JAULKIPEN PROZESUARI DAGOKIONEZ (FIBKS)

[Oharra: epigrafe hauetarako onartutako karaktere-kopurua mugatua da eta, horregatik, sartzen ez den testua G atalean osatuko da, urtero bezala]

Zure erakundearen finantza informazioaren jaulkipen prozesuari (FIBKS) dagokienez, kontroleko eta arriskuen kudeaketako sistemak osatzen dituzten mekanismoak deskriba itzazu.

F.1 Erakundearen kontrol ingurunea

Informa ezazu, gutxienez, ezaugarri nagusiak adieraziz:

F.1.1. Zein organo eta/edo funtzio dira honako hauen arduradunak: (i) FIBKS egokia eta eraginkorra egon eta mantentze dadin; (ii) ezarpena; eta (iii) gainbegiratzea

KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluak, erabakiak hartzeko Sozietatearen organo gorena den aldetik (Batzar Nagusiaren eskumenari erreserbatutako arloetan izan ezik), Sozietatearen administrazioaren eta ordezkaritzaaren ardura du legez eta estatutuen arabera. Era berean, Bankuaren gaineko erantzukizun globala du, helburu estrategikoen inplementazioaren onarpena eta gainbegiratzea, arriskuen estrategia, erakunde gobernua eta erakunde baloreak barne.

Administrazio Kontseiluaren Araudiak, bere 5. artikuluan, zera ezartzen du, Administrazio Kontseiluak bere eginkizunen artean duela kontabilitate eta finantza informazio sistemen osotasuna bermatzea, finantza eta operazio kontrola barne, eta legedi aplikagarriaren betetzea; informazioa zabaltzeko prozesua eta Bankuari buruzko informazioak gainbegiratzea; baita arriskuen kontrol eta kudeaketa arloan, KUTXABANK, S.A.ren eta KUTXABANK Taldearen jarduera lerro nagusiak zehazten dituzten printzipioak eta politikak ezartzea, arriskuen kudeaketa arloan. Printzipio eta politika horiek aldizka berrikusiko dira.

Administrazio Kontseiluak Auditoria eta Betetze Batzordeari eskuordetu dizkio barne kontrol sistemen gainbegiratze eginkizuna. Administrazio Kontseiluko Araudiaren 16. artikulua Auditoria eta Betetze Batzordea arautzen du eta Batzorde horren Araudiaren 1. artikulua zera adierazten du "Batzorde hori barne organo iraunkor giza eratu dela, informazio eta aholkularitza izaera duela, ez duela eginkizun betearazlerik, eta informazio, aholkularitza eta proposamen ahalmenak dituela bere jardura eremuan, sozietatearen estatutuetan, Administrazio Kontseiluaren Araudian, Araudi honetan eta aplikagarria den legedian jasotako araudien arabera eraenduko dela".

Administrazio Kontseiluko Araudiaren 16. artikulua ezartzen duenez, Auditoria eta Betetze

Batzordeak honako hauek ditu bere eginkizunen artean:

- Akziodunen Batzar Nagusiari, Batzordearen eskumeneko arloetan eztabaidatzen diren gaien berri ematea eta, bereziki, auditoriaren emaitzaren berri, auditoriak finantza-informazioaren integritateari nola lagundu dion eta Batzordeak prozesu horretan izan duen funtzioa azaltzeko.
- Sozietatearen barne kontrolaren eraginkortasuna gainbegiratzea, barne Auditoria, eta arriskuen kudeaketarako sistemak, baita kontu-auditoreekin eztabaidatzea ere, Auditoria egitean antzeman diren barne kontrol sistemako ahuldade esanguratsuak, hori guztia haien independentzia hautsi gabe. Ondorio horietarako, eta egokia bada, gomendioak edo proposamenak aurkeztu ahal izango dizkiote Administrazio Organoari eta horren jarraipena egiteko dagokion epea ere.
- Aginduzko finantza informazio arautuaren lanketa eta aurkezpen prozesua gainbegiratzea eta gomendioak edo proposamenak aurkeztea Administrazio Organoari, bere integritatea babestera bideratuak.

KUTXABANK Taldeko Arauak Betetzeko eta Kontrolatzeko Zuzendaritza, Presidentetzaren mendekoa, Auditoria eta Betetze Batzordera joaten da, besteak beste, Finantza Barne Kontrolleko, Finantzaz Kanpoko Barne Kontrolleko eta Kontrol Ez Espezializatuko Unitateak (aurrerantzean, FBK, FKBK eta KEE Unitatea*) egiten duen FIBKSren ikuskapenari buruzko informazioa emateko, eta txosten bat egiten du kontrol-jardueren betearazpenaren monitorizazioaren eta ebaluazioaren ondorioekin, identifikatutako ahuleziekin, proposatutako ekintza-planekin eta egindako jarraipenekin.

Barne Auditoriak, bestalde, hainbat urtetarako ikuskapen-plan bat du, KUTXABANK Taldearen Finantza Informazioaren Barne Kontrolleko Sistemaren (FIBKS) esparruan FBK, FKBK eta KEE Unitateak garatzen dituen jarduerak ikuskatzeko. Plan horren arabera, txosten bat egiten du, jarduera horiek ebaluatzen dituen eta, hala badagokio, garrantzitsutzat jotzen dituen aurkikuntzak identifikatzen dituen, baita berrikuspenean agerian jarritako arriskuak arintzeko gomendioak ere.

Erantzukizunen esleipen hori Administrazio Kontseiluak onartutako FIBKS politikaren bidez zabaldu zaio erakundeari.

(*) Unitatearen izen berria, 2020ko urtarrilaren 30ean onartua.

F.1.2. Badaude, bereziki informazio finantzarioaren lanketa prozesuari dagokionez, jarraian agertzen diren elementuak:

Honako hauen ardura duten sailak eta/edo mekanismoak: (i) antolakuntza egituraren diseinua eta berrikusketa; (ii) erantzukizun eta autoritate lerroak argi definitzea, lan eta eginkizunen banaketa egokia; eta (iii) erakundearen behar bezala zabaltzeko prozedura nahikoa dagoela, bereziki, informazio finantzarioaren lanketa prozesuari dagokionez.

KUTXABANK S.A.ren antolakuntza-egituraren diseinua eta berrikusketa eta ardura eta aginte lerroen definizioa, Administrazio Kontseiluaren jarraibideek zehazten dute.

Izendapen Batzordea eta Ordainsari Batzordea, Administrazio Kontseiluaren Araudiaren 17. eta 18. artikuluetan ezartzen duenaren arabera, honako eginkizun hauek ditu, besteak beste, (i) Kontseiluari goi mailako zuzendarien izendapenak eta kargu uzteak informatzea (Izendapen Batzordea) eta (ii) ordainsari politika proposatzea eta betetzen dela zaintzea (Ordainsari Batzordea).

Giza Baliabideen Zuzendaritzak du beharrezko baliabideak esleitzeko ardura, eginkizunei eta adostutako lan kargei egokitutako profilarekin, edozein kasutan, arloko Zuzendaritza arduradunarekin, eta Administrazio Kontseilua da erakundearen antolakuntza oinarriak

finkatzeko ardura duena.

Finantza-informazioaren lanketan argi eta garbi daude zehaztuta autoritate eta erantzukizun lerroak. Zehazki, Finantza Zuzendaritza Arloak du merkatuei aurkezten zaien (dagozkion onarpenak eta balioespenak egin ostean) informazio finantzarioa lantzeko ardura eta bere lan-organigrama propioa du, eta bertan zehazten dira erantzukizun lerroak, betebeharrak eta eginkizunak.

Jokabide-kodea, onarpen-organoa, hedapen eta instrukzio maila, barne hartzen dituen printzipioak eta baloreak (eragiketen erregistroak bereziki aipatzen diren eta informazio finantzarioaren lanketa zehaztuz), ez-betetzeak aztertzeaz eta jarduera zuzentzaileak eta zigorrak proposatzeaz arduratzen den organoa.

KUTXABANK, S.A.k Jokabide-kode bat du, eta haren azken bertsioa Administrazio Kontseiluak onartu du 2019ko martxoaren 28ko bilkuran. Kode horren hedapen-maila unibertsala izan da erakundearen, KUTXABANK, S.A.ren intranet korporatiboaren bidez egindako albiste baten bidez, eta, era berean, langile guztientzat eskuragarri dago.

Jokabide-kodea nahitaez bete behar dute Administrazio Kontseiluko kideek, zuzendaritza-taldeak eta enplegatu guztiek, hargatik eragotzi gabe pertsona horietako batzuk Balore Merkatuetako Jokabidearen Barne Araudiaren eta beren eginkizunekin lotutako jardueraren beste jokabide-kode espezifiko batzuen mende egotea.

Hedapen-betebeharrak betetzeko eta Kodearen, printzipio, prozedura eta salaketa-kanalaren ezagutza zabaltzeko, Erakundeak bere langile guztiak gonbidatu ditu kode horri buruzko prestakuntza-ikastaroak egitera eta salaketa-kanalaren existentzia eta funtzionamendua ezagutzeko.

Era berean, KUTXABANK, S.A.k aldian-aldian egiten du Araudia Beteko eta Taldea Kontrolatzeko Sailaren eskumeneko gaiei buruzko nahitaezko prestakuntza. Prestakuntza horretan, eguneroko jardueran jokabide etiko eta profesionala lortzera bideratutako jardunbide egokiak transmititzen eta helarazten dira.

Langile berrien kontratazioetan, berriazko onarpen-klausulak dituzten lan-kontratuak sinatzen direnean, Jokabide-kodearen testu osoa ematen da ezagutzera.

Jokabide-kodeak, erakundearen eginkizunean, ikuspegiaren eta balioetan oinarrituta, enpresaren etikaren eta gardentasunaren printzipioekiko konpromisoa jasotzen du bere jardun-eremu guztietan, eta KUTXABANK, S.A. osatzen duten pertsonen portaera etikoa eta arduratsua bermatuko duten printzipioak eta jokabide-arauak ezartzen ditu. Erakundearen printzipio eta balio horiek dira Jokabide-kodea egituratzeko zutabeak, eta, beraz, erakundearen arau, politika eta prozedura guztiak, esparru juridikoaren araudia betetzeaz gain, jardueraren garapena etika profesionalaren eta gardentasunaren barruan sartzen dela zaintzen dutenak, zuzentasun- eta zintzotasun-printzipioek gidatuta.

Finantza-informazioari dagokionez, Jokabide-kodeak arau hauek ditu:

- KUTXABANK, S.A.k informazio fidagarria, zehatza, osoa eta egokia eman behar du bere finantza-egoerei buruz eta egoera horietan eragin esanguratsua izan dezaketen gertaerei buruz. Bereziki, urteko kontuei buruzko informazioak leialki islatuko du Erakundearen errealitate ekonomikoa, finantzarioa eta ondarezkoa.
- KUTXABANK, S.A.k ezarritako prozedurez gain, finantza-informazioa indarrean dauden balorazio-printzipio eta -arauen arabera egiten dela ziurtatzeko, langile guztiek informazioa erregistratzeko eta tratatzeko zereginak arduraz betetzeko betebeharra dute, eta hori da Erakundearen finantza-informazio publikoa lantzeko prozesuaren oinarria.
- KUTXABANK, S.A.ko langileek beren gain hartzen dute erabilitako erregistro motetan

sartzen dituzten datuen fidagarritasunaren, zehaztasunaren, osotasunaren eta eguneratzearen erantzukizuna, bai eta beren eginkizunen garapenean egiten duten informazioarena ere, Erakundearen arlo jakin batzuei informazioaren osotasunaren eta eskuragarritasunaren arloan berariaz esleitutako erantzukizunak alde batera utzita.

- Erantzukizun hori ezartzea bereziki garrantzitsua da KUTXABANK, S.A.ren finantza-egoerak egiteko beharrezkoak diren datuei eta txostenei dagokienez; izan ere, horiek behar bezala erregistratu eta interpretatzea ezinbestekoa da kontabilitate-saldo, transakzio edo kontingentzia bakoitzari dagozkion balorazio-irizpideak behar bezala aplikatzen direla ziurtatzeko.

Araudia Betetzea eta Talde Kontrolak du, Administrazio Kontseiluak emana, honako eginkizun hau, independentziaz eta objektibotasunez, KUTXABANK, S.A.k osotasunez jardun dezan sustatzea eta gainbegiratzea, bereziki arlo hauetan: kapital-zuriketaren prebentzioa, bezeroekiko jokabidea, balore-merkatuetako jokabidea, arrisku penalaren prebentzioa, datuen babesa eta erakundearentzat ospe-arriskua ekar dezaketen beste batzuk. Jokabide-kodeari dagokionez, Arauak Betetzeko Funtzioari dagokio hura zabaltea, ezagutzea eta betetzea, hura eta hura garatzen duten arauak betetzea, interpretatzen laguntzea eta salaketen bide etikoa kudeatzea.

Barne-ikerketako eta -kontrolako eginkizunen artean, Barne Auditoriak behar diren probak eta berrikuspenak egiten ditu Kodean ezarritako arauak eta prozedurak betetzen direla egiaztatzeko, eta salatutako egitateen instrukzioa eta egiaztapena egiten du, beharrezkoak diren probak eta berrikuspenak eginez.

Giza Baliabideen Arloari dagokio Kodea behar bezala ezagutzeko prestakuntza antolatzea, salaketen bide etikoaren bidez planteatutako kontsultak interpretatzea eta erantzutea, Arauak Betetzearen eta Barne Auditoriaren Funtzioarekin batera, eta, bere eskumen-eremuan, Barne Auditoriak aurkeztutako egitateak aztertzea, hala badagokio, eta diziplina-jarduerak proposatzea, hala badagokio.

Salaketa kanala, irregulartasun finantzarioak eta kontabilitatekoak Auditoria Batzordeari komunikatzea ahalbidetuko duena, gehi portaera kodearen balizko ez-betetzeak eta jarduera irregularrak antolakuntzan, eta konfidentziala den ere informatuko du, hala badagokio.

Profesionalek egoerak eta kezkak modu irekian jakinaraztea, ondorio negatiboen beldurrik gabe, funtsezkoa da KUTXABANK, S.A.ren jokabide-kodea behar bezala ezartzeko.

Horregatik, KUTXABANK, S.A.k barne-salaketarako kanal bat du bere langileentzat, eta kanpoko kanal ireki bat hirugarrenentzat. Kanal horren helburua da erakundearen balioak aplikatzea sustatzea, dilema etikoak edo antzemandako ez-betetzei buruzko jakinarazpenak ebaztea (finantza- eta kontabilitate-irregulartasunak barne), eta, aldi berean, informazio-iturri bat dira Erakundearentzat, KUTXABANK, S.A.ren funtzionamendu-prozeduretan kontrol berriak eta hobekuntza-ekintzak inplementatu ahal izateko.

Kanal bietan bermatzen dira anonimotasuna eta komunikatutako informazioaren konfidentziasuna, eta modu objektibo, inpartzial eta konfidentzian aztertuko da. Salataileak, gainera, erakundearen enplegatuak balira, salatailearen aurkako errepresalien debekua salaketa-kanala arautzen duen funtsezko printzipioa da.

KUTXABANK, S.A.k, gainera, Administrazio Kontseiluak 2019ko martxoaren 28ko bilkuran onartutako dokumentu bat du. Bertan, honako hauek deskribatzen dira: jakinarazitako gertakarien

aurrean jarduteko prozesuan parte hartu dutenen antolamendua eta eginkizunak, kanala arautzen duten printzipioak, salagarriak diren egitateak eta jokabideak, bai eta prozeduraren eta funtzionamenduaren xehetasunak ere: salaketak jasotzea, ikerketa, ebazpena eta komunikazioa.

KUTXABANK, S.A.ren Betetzearen Esparru Korporatibo Orokorra garatzea, ezartzea eta betearaztea Araudia Betetzea eta Talde Kontroleko Sailari dagokio, arrazoi operatiboak edo espezializaziokoak direla medioa esparru horren organoak ez diren baina eginkizun horretan laguntzen dioten beste antolaketa-unitate batzuekin batera.

Kanala jasotzea eta kudeatzea: Araudia Bete eta Talde Kontrol sailari dagokio.

Ikerketa: Barne Auditoriari dagokio ikerketa eta barne-kontrolako bere funtzioen barruan egitea; era berean, Giza Baliabideen arloak, bere eragin-eremuan, Barne Auditoretzak aurkeztutako egitateak aztertzen ditu, hala badagokio eta, dagozkion diziplina-ekintzak proposatzen ditu, egokia izanez gero.

Ebazpena: Diziplina Batzordeari dagokio lan-arloko ez-betetzeak zehatzea, Hitzarmen Kolektiboan jasotako hutsegiteen kasuetan, hala badagokio. Ustez delitu-egitateak egin izanaren edo nahitaez bete beharreko beste edozein lege-arauren arau-haustea egin izanaren zantzuak daudela susmatzen bada, Aholkularitza Juridikoari jakinaraziko zaio, hura baita, Erakundearen barruan eta bere eskumenen esparruan, dagozkion akzio penalak gauzatzeaz arduratzen den arloa.

Araudia Betetze eta Talde Kontroleko Sailak aldian behin txostenak egiten ditu salaketa-kanalaren funtzionamenduari, erabilerari eta planteatutako gaiei buruz, eta aldian behin Auditoria eta Betetze Batzordeari eta Administrazio Kontseiluari bidaltzen dizkie.

Barneko salaketa-kanala Erakundearen Intranet Korporatiboan dago, eta kanpoko, bere webgune korporatiboan. Bi gune horietan, salagarriak diren egitateak jakinarazi nahi dituzten pertsonen eskura jartzen dira komunikazio horretan laguntzeko inprimakiak.

Prestakuntza programak eta aldizkako eguneratzea, informazio finantzarioaren prestakuntzarekin, ebaluazioarekin eta berrikusketarekin zerikusia duten langileentzat, baita FIBKSren ebaluazioarekin zerikusia dutenena ere. Programa horiek kontabilitate arauak, Auditoria, barne kontrola eta arrisku kudeaketa, behintzat, andu behar dituzte.

Informazio finantzarioarekin eta FIBKSren ebaluatzearekin zerikusia duten prozesuetan diharduten KUTXABANK, S.A.ren langileek, prestakuntza-ekintzak eta ezagutza eguneratzeak jasotzen dituzte aldizka, berriaz diseinatuak haien eginkizunen garapen egokia errazteko. 2019ko ekitaldian zehar, 15.531 prestakuntza-ordu eman zaizkie arlo horietako 206 langileri. Arlo horien artean daude kontabilitatearen, auditoretzaren, arriskuen kudeaketaren eta barne-kontrolaren arloko prestakuntza-ekintzak.

KUTXABANK, S.A.n emandako prestakuntza-saioak aurrez aurrekoak eta on-line dira, bertako edo kanpoko prestatzaileen eskutik emanak.

FIBKSren arloko prestakuntzari dagokionez, 2019ko ekitaldian, FBK, FKBK eta KEE unitateetako langileek Finantza Informazioaren Barne Kontrolari buruzko prestakuntza-ikastaro espezifiko batean parte hartu dute. Bost orduko iraupena izan du ikastaro horrek.

Halaber, 2019ko ekitaldian, Barne Auditoriako eta FBK, FKBK eta KEE Unitateko 27 langilek osatu dute COSO Barne Kontroleko Egiaztatze Programa.

Administrazio Kontseiluko kideek egindako prestakuntzari dagokionez, 2019an kanpoko hizlariak prestakuntza espezifiko eman dute gutxi gorabehera bi ordu eta erdiko saioetan, honako hauekin lotuta: finantza-arriskuak (kreditu-arriskua, interes-arriskua eta likidezia-arriskua), ingurune

ekonomikoa eta banku-sistema, arauak betetzea (berritasunak banku- eta finantza-araudian), Fintech, ziberrarriskuak, zibersegurtasuna, arrisku ez-finantzarioak eta zeharkakoak, eta IRB ereduak.

F.2 Informazio finantzarioaren arriskuen ebaluazioa

Informa ezazu, gutxienez, honakoen gainean:

F.2.1. Zeintzuk dira arriskuen identifikazio prozesuaren ezaugarri nagusiak, akatsa edo iruzurra barne

Prozesua existitzen bada eta dokumentatuta badago

KUTXABANK, S.A.k informazio finantzarioaren arriskuak identifikatzeko eta ebaluatzeko prozesua du, akatsa eta iruzurra barne.

Finantza egoeretan eragin potentzial esanguratsua duten arriskuen identifikazio prozesua, informazio finantzarioaren sortzeari atxikitako kudeaketa-prozesu kritikoen eta aipatutako arriskuak gauzatzen diren finantza-egoeren arlo edo epigrafeen identifikazioan ardatzen da. Prozesuen eta arloen azterketan faktore kuantitatiboak (saldoa eta granularitatea) eta kualitatiboak (prozesuen automatizazio maila, eragiketen estandarizazioa, kontabilitate konplexutasun maila, aurreko ekitaldiarekiko aldaketak, kontrol ahuldade identifikatuak, e.a.).

Prozedurak informazio finantzarioaren helburu guztiak betetzen dituen, (existentzia eta gertaera; zuzentasuna; balorazioan; aurkezpena, banatzea eta bateragarritasuna; eta eskubideak eta betebeharrak), ea eguneratzen den eta zein maiztasunaz

Arriskuen ebaluazio prozesu horrek informazio finantzarioaren helburu guztiak estaltzen ditu: (i) existentzia eta gertaera; (ii) zuzentasuna; (iii) balorazioa; (iv) aurkezpena; (v) banatzea eta bateragarritasuna; eta (vi) eskubideak eta betebeharrak.

Arriskuen identifikazio-prozesuaren irismenaren berrikusketa urtero osatzen da, urteko lehenengo hiruhilekoan, aurreko ekitaldiko abenduaren 31ko Egoera Publiko Bateratuak oinarri erabilita, eta bigarren sei hilekoan berrikusten da, ekitaldiko sei hilekoaren itxierako datuak erabilita.

Hala ere, ekitaldian zehar, alde zuzenetik identifikatu gabeko inguruabarrak agertuz gero, eta horiek informazio finantzarioaren balizko akatsak edo KUTXABANK, S.A.ren eragiketetan aldaketa esanguratsuak azaleratuz gero, Finantza Zuzendaritzak alde zuzenetik identifikatuta zeudenei metatu behar zaien arriskurik dagoen ebaluatuko du.

Baterakuntza perimetroaren identifikazio prozesua existitzea, besteak beste, sozietate-egitura konplexuen, tresna-erakundeen edo proposamen berezien balizko existentzia aintzat hartuta.

Baterakuntza Sailak hiru hilean behin eguneratzen du baterakuntza-perimetroa. Horretarako, partaidetzako sozietateekin lotutako gertaera ekonomikoek baterakuntza perimetroan izan dezaketen eragina aztertzen da, baldin eta arlo arduradunek jakinarazi badituzte, eta, gainera, mugimendu horiek beste informazio-iturri batzuekin alderatzen dira (adibidez, titulu-zorroaren inbentarioa, sozietate edukitzaileen balantzeak eta abar). Bestalde, finkatze-perimetroa behar bezala identifikatzearekin lotutako balizko arriskuak "Baterakuntza-prozesua" izenekoan dokumentatuta daude. Prozesu hori KUTXABANK, S.A.ren FIBKSren prozesu kritikoetako bat da, eta sei hilean behin berrikusi da.

Prozesuak beste arrisku tipologia batzuetako eraginak hartzen dituen aintzat (eragiketetoak, teknologikoak, finantzarioak, legalak ospearenak, ingurumenekoak, e.a.) finantza-egoerei eragiten dieten neurrian.

Arriskuak identifikatzeko prozesuak aintzat hartzen ditu bai ohiko transakzioak bai ez hain ohiko eta potentzialki konplexuagoak direnak, baita beste arrisku tipologia batzuen eragina ere (eragiketetoak, teknologikoak, finantzarioak, legalak ospearenak, ingurumenekoak, e.a.) finantza-egoerei eragiten dieten neurrian.

Erakundearen zein gobernu organok gainbegiratzen du prozesua.

Arriskuen eta kontrolen identifikazio prozeduraren gainbegiratzea Auditoria eta Betetze Batzordeari dagokio, FBK, FKBK eta KEE Unitatearen bitartez.

F.3. Kontrol jarduerak

Informa ezazu, gutxienez, ezaugarri nagusiak adieraziz:

F.3.1. Informazio finantzarioaren berrikusketa eta baimentze prozedurak eta FIBKSren deskribapena, balore merkatuetan argitaratzekoa, arduradunak zeintzuk diren adierazita, baita jarduera eta kontrol fluxuen dokumentazio deskriptiboa ere (iruzur-arriskuei buruzkoak barne), finantza-egoerei era materialean eragin diezaieketen transakzio mota guztienak, kontabilitate itxiera prozesua eta epai, zenbatespen eta proiektzio esanguratsuen berrikusketa berezia barne.

Merkatuetan argitaratzen diren KUTXABANK, S.A.ren finantza-informazioaren berrikusketa eta baimentze prozedurak, Finantza Zuzendaritzak berrikusten dituen abiarazten dira. Gainera, finantza-informazio arautuaren lanketa eta aurkezpen prozesua Auditoria eta Betetze Batzordeak gainbegiratzen du, bere Araudiaren 3. artikuluan ezartzen denez, indarrean dauden kontabilitate arauak zuzen ezartzen direla eta finantza-informazioa fidagarria dela zaintzeko helburuz eta Administrazio Kontseiluak aurkeztu baino lehen. Administrazio Kontseiluaren Araudiaren 5. artikuluan jasotzen denez, Organo horrek honako eskumen hauek ditu, besteak beste, Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta KUTXABANK, S.A.ren Eraitzen Aplikazio Proposamena aurkeztea; kontabilitate eta finantza informazio sistemen osotasuna bermatzea, finantza eta operazio kontrola barne, eta indarrean dagoen legedia betetzea; eta KUTXABANK, S.A.ri buruzko informazioaren eta komunikazioen hedapen prozesua gainbegiratzea.

Finantza-egoerei era materialean eragin diezaieketen transakzioekin zuzenean zerikusia duten jarduera eta kontrolei dagokienez, KUTXABANK, S.A.k informazio finantzarioaren sorrera, lanketa eta prestaketari eragiten dioten prozesuen eta arlo esanguratsuen arriskuen eta kontrolen Prozedurak eta Matrizeak ditu.

Prozedurek zerikusia duten eginkizunak hartzen ditu aintzat, zerikusia duten sistemak eta prozesuaren deskriptiboa. Gainera, arriskuen eta kontrolen Matrizeak, besteak beste, honako arlo hauek hartzen dituzte aintzat:

- Arriskuaren deskriptiboa
- Kontrol jarduera
- Kontrolaren sailkapena: gakoa /estandarra
- Kontrolaren kategoria: prebentiboa /detektatzekoa

- Metodoa: eskukoa /mistoa /automatikoa
- Kontrola jasaten duen sistema
- Kontrolaren arduraduna
- Kontrolaren maiztasuna
- Kontrolaren ebidentzia

Arestian komentatutako dokumentazio deskriptiboak honako hauek hartzen ditu barne:

- Prozesuarekin hasieratik zerikusia duten jardueren deskribapena, produktu edo eragiketek izan ditzaketen berezitasunak zehaztuz.
- KUTXABANK, S.A.ren finantza-egoeretan eragin materiala izan dezaketen arrisku esanguratsuen identifikazioa.
- Kontrolen identifikazioa eta deskripzioa, baita aldez aurretik identifikatutako arriskuekiko lotura ere.

Jarduerak eta kontrolak gertatutako transakzioen erregistro, balorazio, aurkezpen eta banakapen egokiak bermatzeko asmoz diseinatzen dira.

KUTXABANK, S.A.ren FIBKSren ebaluazio-prozesuaren barruan, giltzarri diren kontrolen sei hilez behingo barne-egiaztapen prozesu bat du, finantzen inguruko informazioa fidagarria dela bermatzeko. Horretarako, giltzarri diren kontrolen arduradun guztiek dagokion epean hauek eraginkortasunez egin direla egiaztatzen dute. Araudia Betetzea eta Talde Kontroletik ziurtapen-prozesuan lortutako emaitza aurkezten diote Auditoria eta Betetze Batzordeari eta Administrazio Kontseiluari, jakin dezan. KUTXABANK, S. A.k 2019ko ekitaldian egindako kontrol nagusien barne ziurtapen-prozesu horren ondorioz, finantza-informazioaren fidagarritasunean modu material batean eragin dezakeen gorabeherarik ez da aurkitu.

Bere aldetik, Barne Auditoriak, geroagoko ataletan deskribatuko den bezala, gainbegiratze-jarduerak egiten ditu.

Epai eta zenbatespen esanguratsuen berrikusketari dagokionez, epai edo zenbatespen parametroak dituzten arlo esanguratsueni buruzko informazioa ematen du KUTXABANK, S.A.k bere urteko kontuetan, baita horiekiko KUTXABANK, S.A.k aurreikusi dituen hipotesi giltzarri buruzko informazioa ere. Zentzu honetan, egindako zenbatespen nagusiak zenbait finantza aktiboren narriaduragatiko galerei buruzkoak dira, pasiboari buruzko kalkulu aktuarialak eta pentsioengatiko konpromisoak, eta epe luzerako beste ordainsari batzuk, Aktibo ukigarrien eta Aktibo ukiezinen elementuei aplikatutako balio-bizitza, finantza-aktibo ez kotizatuen arrazoizko balioa eta horniduretatik eta pasibo kontingenteetatik esperotako kostua eta bilakaera.

Gainera, KUTXABANK, S.A.k epaiak eta zenbatespenak egiteko politika orokorra du, eta aintzat hartu beharreko alderdi guztiak hartzen ditu barne, baita horien prestaketako eta berrikusketako ardurak ere.

F.3.2 Erakundearen prozesu esanguratsuek informazio finantzarioaren lanketa eta argitaratzeari dagokionez jasaten dituzten informazio-sistemen gaineko barne kontroleko politikak eta prozedurak (besteak beste, sarbide segurtasunaz, aldaketen kontrola, horien eragiketa, eragiketen jarraikortasuna eta eginkizunen banantzea).

KUTXABANK, S.A.k informazio-sistemak erabiltzen ditu bere eragiketen erregistro eta kontrol egokia mantentzeko, eta ondorioz, bere jarduera zuzenaren mendekotasun altua du. Sistema hauek barne-kontrolako politikei eta prozedurei lotuta daude, besteak beste:

1. Informazioaren Segurtasunaren Kudeaketa Sistema: Sistema honek, beste politika batzuen artean, informazio eta kontrol (barnekoa zein kanpoko) sistemetara sartzearenak definitzen ditu, eta hauei esker definitutako politika guzti-guztiak egoki ezartzen direla berma daiteke. Aplikazioen diseinuan eta inplementazioan kontrol puntu desberdinak ezartzen

dituen marko metodologikoa dago definituta, lortu den emaitzak erabiltzaileak eskatutakoa betetzen dituela ziurtatzeko, eta kalitate-mailak galdatutako fidagarritasun, eraginkortasun eta mantenu estandarrak betetzen dituela ziurtatzeko. Badago metodologia bat KUTXABANK, S.A.ren negozio-aplikazioak eskatzeko, diseinatzeko eta ezartzeko.

Azpiegituren edo aplikazioen mailako edozein aldaketa barne metodologiaren bidez kudeatzen da. Metodologiak aldaketa onartzeko fluxua definitzen du, eta eragina eta balizko atzera buelta definitzen ditu, aurreko egoerara, edozein gorabehera antzemanaz gero.

KUTXABANK, S.A.ren Sistema Zuzendaritzak sarbideei dagokien segurtasuna estaltzera bideratutako politikak ditu ezarrita, eginkizunen banantzearen bidez, rolen eta profilen definizioaz, baita bere funtzionamenduaren jarraipena, babes zentroak sortuz eta bere eraginkortasunaren aldizkako proben bidez.

2. Eragiketaren eta Negozioaren jarraitutasuna: Kontingentzia Informatikoko Planak babes zentro ispiluetan oinarritzen dira, eta Host eta Banatutako sistemetara zabaltzen dira. Plan horien aldizkako proba eta kontrolak egiten dira, eraginkortasuna eta jarduera zuzena bermatzeko.

Aldi berean, zerbitzu hornitzaile nagusiek (azpiegiturak, telekomunikazioak, e.a.) segurtasun sistema oso gaituak ezarri dituzte Erakundean, sektoreko praktika onenetan oinarrituta. "Services Level Agreement" (SLA) deritzenak betetzea aldizka berrikusten du KUTXABANK, S. A.k.

FIBKSren eremuan, KUTXABANK, S.A.k Informatika Kontrol Orokorraren Prozesua du, honi dagozkion arriskuen eta kontrolen prozedura eta matrizearekin batera. Bertan sarbidearen segurtasunari, aldaketen kontrolari, berauen eragiketari, eragiketaren jarraitutasunari eta funtzioen bereizketari dagozkien arriskuak eta kontrolak zehazten dira.

F.3.3 Hirugarrenei azpikontrataturako jardueren kudeaketa gainbegiratzera bideratutako barne kontrol politikak eta prozedurak, baita aditu independenteen enkargaturako ebaluazio, kalkulu edo balorazio alderdiena ere, finantza-egoerei era materialean eragiterik duten kasuetan.

KUTXABANK, S.A.k zerbitzuak eta eginkizunak kanporatzeko Erakunde Politika du, eta horren azken eguneratzea 2019ko irailaren 26an onartu zuen Administrazio Kontseiluak.

Politika horrek zerbitzuen kontratazioarako prozesuaren atal desberdinetan derrigorrez bete behar diren printzipioak, arauak, prozedurak eta kontrolak ezartzea du helburu, baita zerbitzu bat hirugarren batekin kontratatzea erabakitzen den aldi bakoitzean jarraitu beharreko prozedura garatzen duen esparrua edo araua ere, eta funtzio eta zerbitzuak kanporatzeko orduan aplikagarria izango da, hodeian garrantzitsuak direnak, nahiz ez direnak.

Zerbitzuen kontratazioaren gobernantza-esparru hori aplikagarria da, bai talde barruko kontratazioa bada, bai hirugarren hornitzaile batekin egindako kontratazioa bada.

Araudia Betetzea eta Talde Kontrolaren arloaren ardura da eginkizunak kanpora ateratzeak eragindako pertsonak eta arloek Politika betetzen dutela egiaztatzea, bai eta pertsona eta arlo horiek arauarekin lotuta izan ditzaketen zalantzei buruz aholkatzea eta zalantzak argitzea ere. Kontrol-lanari dagokionez, politikaren xede diren kanporatzeek eragindako arriskuak kudeatu eta ikuskatzen ditu, eta horien dokumentazioa gainbegiratzen du, gobernu-organoetara igor dezan aldizka.

Barne Auditoriako Atalak Politika eta bertan ezartzen diren betebeharrak eta erantzukizunak aldian-aldian berrikustea du esleituta, bai eta kanpora ateratzeko akordioen jarraipena egitea ere.

KUTXABANK, S.A.k ez du kanporatu finantza-informazioan eragin esanguratsua duen prozesurik; hala ere, KUTXABANK, S.A.k aditu independenteen txostenak erabiltzen ditu sarri, finantza egoerei era materialean eragin diezaieketen eragiketak baloratzeko.

2019ko ekitaldirako, aditu independenteen balorazioekin eta kalkuluekin zerikusia zuten hirugarrenei enkargaturako jarduerak, honako hauei buruzkoak izan dira:

-Finantza-tresna egituratuen eta eratorrien balorazioak.

-Langileekin onartutako konpromisoen azterketa aktuariaren kalkulua.

-Esleitutako higiezin tasazioak eta KUTXABANK, S.A.ren kreditu-zorroaren eragiketetan berme gisa diharduten higiezinena.

KUTXABANK, S.A.k maila guztietan ditu ezarrita kontrolak, jarduera hauei lotutako arriskuak arintzeko. Kontrol horiek eragiketen ardura duten sailek egikaritzen dituzte, eta gaitasuna, trebakuntza, egiaztatzea edo independentzia egiaztatzea dute helburu, baita erabilitako datuen eta metodoen baliagarritasuna eta erabilitako hipotesien arrazoigarritasuna ere.

F.4. Informazioa eta Komunikazioa

Informa ezazu, gutxienez, ezaugarri nagusiak adieraziz:

F.4.1. Funtzio berezia, kontabilitate-politikak definitzeko eta eguneratuta mantentzeko eginkizuna duena (kontabilitate-politiken arloa edo saila) eta bere interpretaziotik eratorritako zalantzak edo gatazkak ebazteko eginkizuna, erakundearen eragiketen gaineko ardura dutenekin komunikazio bizkorra izanez, baita kontabilitate politikaren eskuliburu eguneratua eta erakundeak jarduteko bitartekari dituen unitateei komunikatua.

Finantza Zuzendaritzak du, bere mendean dituen arloen laguntzaz, KUTXABANK, S.A.ri eragiten dioten kontabilitate Politikak identifikatzeko, definitzeko eta komunikatzeko ardura, Talde Ekonomikoaren sozietate filialak barne, baita sozietate filialek nahiz KUTXABANK, S.A.ko negozio unitateek egin litzaketan kontabilitate arloko kontsultak erantzuteko ardura ere.

KUTXABANK Taldearen sozietate filialek, hiru hilean behin, kontabilitateari buruzko informazioa eta informazio osagarria bidaltzen dute KUTXABANK Taldea finkatzeko. Filialen eta Bateratzearen Finantza Zuzendaritza da Talde Ekonomikoko sozietate filialek KUTXABANK, S.A.tik zehazten diren kontabilitate erregistro jarraibideak eta kontabilitate politikak jarraitu ditzatela zaintzen duena. Arlo horretatik, filialen eta partaidetu bazkidetuen informazioa aztertu eta berrikusten da, eta beharrezkoa izanez gero, bidalitako informazioa berrikustean aurkitzen diren gorabeherak jakinarazten zaizkie sozietateetako arduradunei zuzenean, filialen kasuan, edo Partaidetuen Atalari, bazkidetuen kasuan.

Informazio finantzarioari eragiten dioten eta finantza egoeretan eragina duten araudi aldaketak egonez gero, Finantza Zuzendaritzaren erantzukizuna da, eta zehazki, Kontabilitate eta Estatistika arloarena, eragindako arloetako langileei helaraztea.

KUTXABANK Taldearen kontabilitate politikaren jarraipena ziurtatzeko helburuz, KUTXABANK, S.A.k Kontabilitate Politikaren Eskuliburua du, eguneratuta, Finantza zuzendaritzak eta KUTXABANK, S.A.ren Zuzendaritza Batzordeak onartua, eta edozein araudi aldaketaren ondorioz eguneratzen dena.

KUTXABANK Taldeak ezar ditzakeen kontabilitate politikak definitzen dituen kontabilitate araudi markoak eta finantza egoerak ondarearen eta finantza egoeraren irudi fidela erakustea ahalbidetzen duenak honako hauek hartzen ditu barne, (i) Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauak (ii) Espainiako Bankuaren azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularra eta gerora izan dituen eguneratzeak.

F.4.2. Informazio finantzarioa harrapatzeko eta prestatzeko mekanismoak, formatu homogeneodunak, Erakundeko edo Taldeko unitate guztiek ezartzeko eta erabiltzekoa, finantza-egoera nagusiak eta notak jasango dituztenak, baita FIBKSri buruz zehazten den informazioa ere.

KUTXABANK Taldearen finantza-informazio bateratua sortzeko prozesua Finantza Zuzendaritzan

burutzen da. Horretarako, tresna bat dago, eta KUTXABANK Taldeko bankuetako finantza-informazio guztia automatikoki jaulkitzen da tresna horretara. Informazio hori gainontzeko aplikazioekin integratuta dagoen kontabilitate-tresna batetik abiatuta lantzen da. Baterakuntza prozesua burutzeko, Talde Ekonomikoaren sozietate filialek Erakundeak berak erabiltzen duen aplikazio bateratu berera sartzea dute, eta horren bidez kargatzen dute informazio finantzarioa, beraz, saldo guztiek iraultzen dute KUTXABANK Talderako kontu-plan homogeen batean.

Filialen informazio finantzarioa ezarritako jarraibideak eta formatuak jarraituz helarazten da, eta KUTXABANK Taldearen finantza egoeren prestaketa-prozesuaren sarrera-datuak dira. Gainera, sozietateek beharrezko informazio gehigarria igortzen diote Filialen eta Baterakuntza Finantza Zuzendaritzari, bidalitako informazioa egiaztatu eta alderatzeko, nahiz kontabilitate irizpideak harmonizatzeke eta homogeneizatzeke Europako Banku Zentralerako edo Espainiako Bankurako.

Filialen eta Baterakuntza Finantza Zuzendaritza atalak du sozietate filialek eta partaidetuek hiru hilean behin Sailari helarazitako informazio finantzarioaren eta Higiezinaren Negoziotik eta Partaidetuetatik jasotako bazkidetuen informazioaren berrikusketa egiteko ardura. Kasuaren arabera, beharrezko irizten zaien homogeneizatze doiketak egiten dituzte. Sozietateek helarazitako informazio finantzarioaren fidagarritasuna ziurtatzeko helburua duten zenbait prozedura eta kontrol dago, baita informazio hori zuzen tratatuko dela ziurtatzeko ere, besteak beste, saldoen, transakzioen eta gertaera ekonomiko esanguratsuen azterketa, horien bilakaera eta aurkezpena arrazoizkoa eta koherentea den, inbentarioak lortzea eta koadratzea, baterakuntza idazpenen berrikusketa eta eguneratzea, e.a. Era berean, badaude prozedurak eta kontrolak baterakuntza prozesuaren emaitzak balidatzeko, besteak beste, lortutako emaitzen eta aurrekontuen arteko aldean azterketa, baita Espainiako Bankuak egiten dituen egoeren gaineko kontrolak. Kontrol horietan, balantzeko partidak eta emaitzen kontua alderatzen baitituzte.

Seihileko eta urteko finantza-egoeren lanketari eta horiei buruzko azalpen-oharrei dagokienez, KUTXABANK Taldeak prozesu bat zehaztu du, argitaratzen den finantza-informazioa KUTXABANK Taldearen kontabilitate-erregistroetan oinarrituta eta araudi aplikagarriaren arabera prestatu dela kontrolatzeko, eta KUTXABANK Taldearen egoera finantzarioaren eta ondasun egoeraren eta lortutako emaitzen irudi leiala islatzen dutela kontrolatzeko. Prozesu horrek Erakundearen hainbat Negozio Arloren parte hartzea eskatzen du eta Esku hartze Orokorreko Zuzendaritzak koordinatua eta gainbegiratua da. Horretarako KUTXABANK Taldeak tresna bat du, non dokumentatuta geratzen den berrikusketa prozesu osoa.

Sei hilabete behin, helburu horri jarraiki, KUTXABANK Taldeko sozietateek sei hileko finantza egoerei eta urteko kontuei dagozkien banantzeak egiteko beharrezko baterakuntza paketeak igortzen dituzte. Pakete horiek sozietate partaidetu nagusien auditoreek balidatu behar dituzte, eta auditore horiei, KUTXABANK Taldea finkatzeko bidalitako informazioari buruzko zenbait txosten eta prozedura eskatzen zaizkie. Besteak beste, ezarritako kontabilitate-irizpideen berrikusketa eta baterakuntza paketeetan bidalitako banantzeen zuzenketa barne hartzen dute.

F.5. Sistemak nola diharduen gainbegiratzea

Informa ezazu, gutxienez, ezaugarri nagusiak adieraziz:

F.5.1. Auditoria eta Betetze Batzordeak egiten dituen FIBKSren gainbegiratze jarduerak, baita ea Erakundeak barne Auditoria duen, eta Auditoria horrek bere eskumenen artean batzordeari barne kontrol sistemaren gainbegiratze eginkizunean laguntza ematea duen, FIBKS barne. Era berean, ekitaldian egin den FIBKSren ebaluazioaren irismenaren berri emango da, eta ebaluazioa egiteaz arduratzen denak zein prozeduraren bidez jakinarazten dituen emaitzak, ea Erakundeak beharrezko zuzenketa-neurriak zehazten dituen jardueraplana duen, eta ea finantza-informazioan duen eragina aintzat hartu den.

F.1.1 atalean deskribatutakoaren arabera, Auditoria eta Betetze Batzordeak honako eginkizun hauek ditu, besteak beste: Sozietatearen barne-kontrolaren, barne-auditoretzaren eta arriskuak kudeatzeko sistemen eraginkortasuna gainbegiratzea, eta Kontu-auditoreekin eztabaidatzea barne-kontrolako sistemaren ahulezia esanguratsuek, auditoretza garatzean hautemandakoak. Horrez

gain, Auditoria eta Betetze Batzordeari dagokio aginduzko finantza-informazioa egiteko eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea, eta Administrazio Organoari gomendioak edo proposamenak aurkeztea, informazio horren osotasuna babesteko.

Auditoria eta Betetze Batzordeak barne-kontrolako sistemak berrikusteko eta kontrolatzeko lana Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko Departamentuari eta Barne Auditoriari agindu die.

KUTXABANK, S.A.n, FBK, FKBK eta KEE Unitatea KUTXABANK Taldeko Araudia Betetze eta Talde Kontrol Sailaren eginkizuna da. Sail honen eginkizunen artean dago Auditoria eta Betetze Batzordeari txostena eta laguntza ematea, FIBKS ikuskatzeko eginkizunean. Ebaluazio-plana eta FIBKSren ikuskapenaren emaitzak sei hilean behin eta urtero aurkezten zaizkie Auditoria eta Betetze Batzordeari eta Administrazio Kontseiluari. FBK, FKBK eta KEE Unitateek egindako txostenean, egindako lanaren irismena, lortutako emaitzak, identifikatutako gorabeherak eta horietatik eratorritako ekintza-planak zehazten dira.

FBK, FKBK eta KEE Unitateek 2019ko ekitaldirako egindako FIBKS ikuskapenak barne hartu ditu FIBKSren ebaluazio orokorra, ekitaldirako planifikatutako negozio-prozeduren eta zeharkako funtsezko kontrolen monitorizazioa inplementatu du (gainbegiratzeko barne-eskuliburuan zehaztutako irismenarekin), aurreko ekitaldietako ekintza-planen jarraipena, baita kanpoko eta barneko auditoreek proposatutako ekintza-planen jarraipena ere. Era berean, FIBKSren kontrolen barne-ziurtagenaren prozesuaren emaitza kudeatu, monitorizatu eta Auditoria eta Betetze Batzordeari jakinarazten zaio. Ekitaldia gainbegiratzeko prozesuan hobekuntza-aukerak identifikatu dira, eta, ondorioz, ekintza-planak etorri dira.

KUTXABANK, S.A.ren Barne Auditoriako Funtzioak aseguramendu- eta kontsulta-jarduera independente eta objektiboa egiten du, eta, horretarako, presidente exekutiboaren mende dago administratiboki, eta, funtzionalki, Auditoria eta Betetze Batzordearen mende (AeBB), KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluaren batzorde delegatua.

KUTXABANK Taldearen (KUTXABANK, S.A. eta Cajasur) Barne Auditoria Funtzioaren helburua zerbitzu independenteak eta aseguramendu- eta aholkularitza-helburuak ematea da, balioa gehitzeko eta Taldearen eragiketak hobetzeko. Barne Auditoria Funtzioaren eginkizuna erakundearen balioa hobetzea eta babestea da, arriskuaren arabera aseguramendua, aholkularitza eta analisia eskainiz. Barne Auditoria Funtzioak bere helburuak betetzen laguntzen dio KUTXABANK Taldeari, ikuspegi sistematiko eta diziplinatua emanez arriskuak kudeatzeko, kontrolatzeko eta gobernatzeko prozesuen eraginkortasuna ebaluatzeko eta hobetzeko.

Barne Auditoriak hainbat urtetarako ikuskapen-plan bat du, Kutxabank Taldeko Finantza Informazioaren Barne Kontrolako Sistemaren (FIBKS) esparruan FBK, FKBK eta KEE Unitateek garatutako jarduerak ikuskatzeko. Plan horren arabera, txosten bat egiten du jarduera horiek ebaluatzeko, eta, txosten horretan, garrantzitsutzat jotzen dituen aurkikuntzak identifikatzen ditu, baita berrikusketan azaleratutako arriskuak arintzeko gomendioak ere.

F.5.2. Ea eztabaida prozedurarik duen, horren bidez, kontu auditoreak (NTAn ezarritakoaren arabera), barne Auditoria eginkizunak eta beste aditu batzuek goi mailako zuzendaritzari eta Auditoria eta Betetze Batzordeari edo erakundeko administratzaileei jakinarazi diezaiekete urteko kontuen berrikusketa prozesuetan edo egin behar dituzten beste batzuetan identifikatutako barne kontrolako ahuldade esanguratsuak. Era berean, behatutako ahuldadeak zuzendu edo arintzeko helburua duen jarduera-plana duen jakinaraziko du.

Barne Auditoriaren arloak KUTXABANK Taldearen Finantza Informazioaren Barne Kontrolako Sistemaren (FIBKS) esparruan FBK, FKBK eta KEE Unitateek garatutako jardueren ebaluazioa jakinarazten dio Goi Zuzendaritzari, dagokion txostenaren bidez. Txosten horretan, hala badagokio, garrantzitsutzat jotzen dituen aurkikuntzak identifikatzen ditu, baita horiek berrikustean agerian jarritako arriskuak arintzeko gomendioak ere. Txostenean, antzemandako gorabeheren arduradunak egindako ekintza-plan bat jasotzen da, gorabehera horiek konpontzeko. Halaber, Barne Auditoriako arduradunak txosten horren edukiaren berri emango dio Auditoria eta Betetze

Batzordeari.

Bestalde, kanpoko auditoreak, berrikuspen-prozesuaren atariko fasean zein kontu-auditoretza amaitzean, lortutako emaitzak eta ondorioak azalduko ditu, eta, hala badagokio, identifikatutako barne-kontrolako ahuleziak ere azalduko ditu. KUTXABANK, S.A.k ekintza-planak egin beharko ditu, ikusitako ahuleziak zuzentzeko edo arintzeko. Kontu-ikuskaritza amaitu ondoren, kanpo-auditoreak urteko kontuak, finantza-informazioaren prozesua ebaluatzen duen Espainiako Bankuaren txosten osagarria eta sozietatearen auditoria-batzorderako txosten gehigarria aurkeztu ditu Auditoria eta Betetze Batzordean eta Administrazio Kontseiluan. Prozesu hori aurrera eramateko, Auditoria eta Betetzen Batzordeak dokumentazioa jasotzen du, eta Finantza Zuzendaritzarekin batera aztertu eta berrikusten du, indarrean dauden kontabilitate-arauak behar bezala aplikatzen direla eta finantza-informazioa fidagarria dela zaintzeko.

Auditoriak irauten duen bitartean, KUTXABANK, S.A.ren kontu-auditoreak KUTXABANK, S.A.ren Goi Zuzendaritzara zuzeneko sarbidea du, eta aldian-aldian bilerak egiten ditu harekin, bai bere lana egiteko behar duen informazioa lortzeko, bai lan horretan detektatutako kontrol-ahuleziak jakinarazteko.

Horrez gain, eztabaida-prozesu horretan, identifikatu diren FIBKSren balizko ahuleziak ebaluatzen dira, eta, hala badagokio, horiek zuzentzeko proposamenak eta ezarritako ekintzen egoera. Hartara, sei hilean behin, eta FIBKS sistemaren esparruan, Auditoria eta Betetze Batzordeak eta Administrazio Kontseiluak berrikusi eta onartu egiten dituzte FBK, FKBK eta KEE Unitateek eta Barne Auditoriak proposatutako ekintza-planak.

F.6. Bestelako informazio esanguratsua

Ez dago ezer aipagarrikerik atal honetarako.

F.7. Kanpoko auditorearen txostena

Eman ezazu honen inguruko informazioa:

F.7.1. Merkatuetara igorritako FIBKSren informazioa ea kanpoko auditoreak berrikusi egin duen, eta hala balitz, erakundeak dagokion txostena Eranskin gisa sartu beharko luke. Ezetz balitz, zergatik egin duen azaldu beharko luke.

KUTXABANK, S.A.k berrikustera eman dio kanpoko auditoreari IAGCren F atal honetan agertzen FIBKSri buruzko informazioa, 2019ko ekitaldiari dagokiona. Sortu den txostenak ondorioztatu du FIBKSri buruzko informazioaren gainean aplikatutako prozeduren ondorioz, ez dela aurkitu txostenean bertan eragina izan dezakeen ahultasunik edo gorabeherarik, eta Erakunde Gobernuaren Urteko Txosten honen eranskin gisa igorriko da.

G BESTELAKO INFORMAZIO INTERESGARRIAK

Erakunde gobernu arloan alderdi esanguratsurik badago erakundearen edo taldeko sozietateetan, Txosten honetako gainontzeko ataletan jaso ez dena, baina beharrezkoa bada jasotzea, gobernu egiturari eta praktikei buruzko informazio osoagoa eta arrazoituagoa biltzeko erakundearen edo bere taldearen, adieraz itzazu labur.

Atal honen barruan, beste edozein informazio, argibide edo ñabardura ere sar daiteke, txostenaren aurreko atalekin zerikusia duena, garrantzitsuak eta ez errepikatuak diren neurrian.

Zehazki, erakunde gobernu arloan, erakundea Espainiakoa ez den beste legedi baten mendean dagoen adieraziko da eta, kasuaren arabera, adieraz ezazu zein informazio eman behar duzun, txosten honetan galdatutakoa ez bada.

Printzipio etikoetako edo praktika onetako beste kode batzuetara borondatez atxiki den ere adieraz dezake erakundeak, nazioartekoak, sektoreen arabekoak edo beste eremu batzuetakoak. Kasuaren arabera, erakundearen aipatutako kodea identifikatuko du, baita atxikipen-data ere.

Ez dago Erakunde Gobernu Urteko Txosten honetan azaldutakoari atxikitzeko printzipio edo alderdi esanguratsurik.

Esanak esan, C.1.4 atalari dagokionez, aipatu behar da Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jaunak 2019ko urriaren 29an, egun horretatik aurrera, KUTXABANK, S.A.ko Administrazio Kontseiluko kide eginkizunari eta, ondorioz, Administrazio Kontseiluko lehen presidenteorde eta Batzorde Betearazleko kide eginkizunari uko egin ondoren, gaur egun postu huts bat dagoela. Hori dela eta, adierazitako emakumezko kontseilarien ehunekoa aldi baterakoa da, harik eta postu huts hori bete arte; kasu horretan, aipatutako ehuneko hori alda liteke.

Era berean, C.1.5 atalari dagokionez, epigrafeak karaktere-kopurua mugatuta duenez eta ezin izan denez erantzun osoa eskaini, erantzunak ildo honetatik jarraitzen duela adierazi behar da:

[Oharra: aplikatzen duten karaktere-kopuruaren mugaren arabera, dagokion testua hemen sartuko da]

Era berean, C.1.12 atalari dagokionez, zera adierazi behar da, Auditoria eta Betetze Batzordeak txosten hau berrikusi duen datan, Administrazio Kontseiluak onartu baino lehen, Auditoria eta Betetze Batzordeak aho batez erabaki duela KUTXABANK, S.A.ren auditorearen independentziari buruzko txostena jaulkitzea, 2019ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiari dagozkion urteko kontuei dagokiena, eta kanpoko auditorearen independentzia zalantzan jartzen duen arrazoi objektiborik ez dagoela adierazi du.

Gainera, E.3 atalari dagokionez, epigrafe horrek karaktere kopurua mugatua duenez, eta erantzun osoa eman ezin izan denez, honako arrisku hauek adierazi nahi dira:

[Oharra: aplikatzen duten karaktere-kopuruaren mugaren arabera, dagokion testua hemen sartuko da]

Horrez gain, [...] atalari dagokionez, epigrafeak karaktere-kopurua mugatuta duenez eta ezin izan denez erantzun osoa eskaini eta ezin izan denez erantzun osoa eskaini, erantzunak ildo horretan jarraitzen duela adierazi beharko litzateke:

[Oharra: aplikatzen duten karaktere-kopuruaren mugaren arabera, dagokion testua hemen sartuko da]

Erakunde gobernuaren urteko txosten hau, erakundeko administrazio kontseiluak edo organoak onartu du 2020ko otsailaren 27an egindako bilkuran.

Txosten honen onarpenari dagokionez, adierazi kontra bozkatu duten edo abstenitu diren kontseilariak edo administrazio organoaren kideak:

1. Sozietate Kotizatuen Estatutuek ez mugatzea akziodun batek eman dezakeen boto kopuru maximoa, eta ez edukitzea akzioan merkatuan erosita, sozietatearen kontrola hartzea zailtzen duten bestelako murrizketa batzuk.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du, Sozietatearen Estatutuek ez baitute zentzu honetako mugarik edo murrizketarik.

2. Sozietate matrizeak eta sozietate independente batek kotizatzen dutenean, biek defini dezatela publikoki zehaztasunez
 - a) Bakoitzari dagokion jarduera eremua eta haien artean izan litezkeen negozio-harremanak, baita mendeko sozietate kotizatuak taldeko gainontzeko enpresekin dituenak ere;
 - b) Sor litezkeen balizko interes gatazkak ebazteko ezarritako mekanismoak.

KUTXABANK, S.A., ez da sozietate kotizatua eta, beraz, ezin ezar dakioket gomendio hau, dagoeneko 2019ko ekitaldiari dagokion erakunde gobernuko urteko txostenean azaldu diren mekanismoen kalterik gabe. Izan ere, mekanismo horiek ditu KUTXABANK, S.A.k balizko interes-gatazkak kudeatzeko.

3. Ohiko Batzar Nagusian erakundearen gobernuaren urteko txostena idatziz ezagutarazteaz gain, Administrazio Kontseiluaren presidentek akziodunei behar den zehaztasunez erakundearen gobernuaren alderdi esanguratsuen berri eman diezaiela, bereziki:
 - a) Aurreko ohiko batzar nagusitik gertatutako aldaketen berri

b) Konpainiak Gobernu onaren Kodearen gomendioren bat ez betetzearen zergati zehatzen berri, eta baleude, alor horretan ezartzen dituen bestelako arauen berri.

KUTXABANK, S.A., ez da sozietate kotizatua eta, ondorioz, ezin aplika dakioket gomendio hau, erakundearen gobernuarekin lotutako gaien inguruan Administrazio Kontseiluaren Presidenteak Akziodunen Batzar Nagusietan (bai ohikoan bai ez ohikoan) ematen duen informazioaren kalterik gabe.

4. Sozietateak akziodunekin, erakundeen inbertitzaileekin eta boto-aholkularitzarekin komunikaziorako eta harremanetarako politika zehatz eta susta dezala, merkatu-abusuaren aurkako arauak erabat errespetatzen dituen eta egoera berean dauden akziodunak berdintzatzen dituen.

Eta Sozietateak aipatutako politika argitara eman dezala bere web orriaren bidez, baita politika hori nola gauzatu den eta burutu duten solaskideak edo arduradunak nortzuk izan diren azalduz.

KUTXABANK, S.A.k tratua bera ematen die sozietatearen akziodunei (hiru banku-fundazio), informazioa legez aurreikusitako gardentasunaren arabera eskura dezaketelako.

5. Administrazio Kontseiluak ez diezaiola Batzar Nagusiari eginkizunak eskuordetzeko proposamenik egin, lehentasunezko harpidetza-eskubiderik gabeko akzioak edo balore bihurtgarriak jaulkitzeko, eskuordetze uneko kapitalaren % 20 baino handiagoa bada zenbatekoa.

Eta administrazio kontseiluak lehentasunezko harpidetza-eskubiderik gabeko akzioak edo balore bihurtgarriak jaulkitzea onartzen duenean, sozietateak berehalaxe argitara ditzala bere web orrian merkataritza-legeriak aipatzen dituen eskusio honi buruzko txostenak.

2019ko ekitaldian ez da aipatutako kasuetako bat ere gertatu.

6. Jarraian aipatzen diren txostenak bai aginduta bai borondatez egiten dituzten sozietate kotizatuek euren web orrian argitara ditzatela, ohiko batzar nagusia egin baino lehen, zabalkundea nahitaezkoa ez izan arren:
 - a) Auditorearen independentziari buruzko txostena

- b) Auditoria, Izendapen eta Ordainsari Batzordeen funtzionamenduari buruzkoak
- c) Auditoria Batzordeak loturadun eragiketei buruz egindako txostena
- d) Erakundearen gizarte erantzukizun politikari buruzkoa.

KUTXABANK, S.A.k jendearen eskura jartzen du informazioa, bere web orri korporatiboaren bidez, legez eskatzen den moduan. Era berean, dagozkion batzar orokorrak egin aurretik behar duten informazioa ematen die akziodunei.

7. Sozietateak zuzenean eman ditzala bere web orriaren bidez akziodunen batzar nagusiak.

Hiru akziodun bakar daudenez, normalean batzarrak izaera unibertsalarekin egiten dira, akziodun guztiak bertan direla, eta ez dira web orriaren bidez helarazten. Hala ere, KUTXABANK, S.A.k, jendearen eskura jartzen ditu Erakunde Gobernuaren Urteko Txostenaren bidez, prentsa-oharren bidez eta informazio garrantzitsua argitaratuz, hala badagokio, bere Batzar Nagusiak hartutako erabakiak.

8. Auditoria eta Betetze Batzordeak Auditoriaren txostenean administrazio kontseilua Batzorde Nagusiari kontuak mugarik eta salbuespenik gabe aurkezten saiatzeaz arduradadila, eta ez ohiko egoeretan salbuespenak egongo balira, Auditoria Batzordearen presidenteak eta auditoreek akziodunei garbi azal diezaieten aipatutako muga edo salbuespenen edukia eta helmena.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du, eta orain arte ez dira aipatutako ez ohiko egoera horiek gertatu.

Administrazio Kontseiluak kontuak Akziodunen Batzar Nagusiari aurkez diezazkion arduratzen da Auditoria eta Betetze Batzordea, Auditoria-txostenean muga barik eta salbuespen barik, baina ez da aipatutako salbuespen edo muga horiek izan dituen ezohiko balizkorik gertatu.

9. Sozietateak beti argitara eman ditzala bere web orrian akzioen jabetasuna, akziodunen batzar nagusira joateko eskubidea eta botoa emateko edo botoa eskuordetzeko eskubidea egiaztatzeko onartuko dituen baldintzak eta prozedurak. Eta baldintza eta prozedura hauek akziodunei bertaratzen eta haien eskubideak erabiltzen lagun diezaieten eta inor baztertu gabe ezar daitezela.

Hiru akziodun baino ez daudenez, normalean batzordeak unibertsalak dira, baina hala eta guztiz ere, akziodun hauek jorratuko diren gaiei buruzko beharrezko informazioa izango dute, aldez aurretik eta batzarrak egin baino lehen.

Akzioen titularitatea, Akziodunen Batzar Nagusira joateko eskubidea eta boto eskubidea egikaritzea edo eskuordetzea egiaztatzeko KUTXABANK, S.A.k onartuko dituen eskakizunak eta prozedurak bere Sozietatearen Estatutuetan jasota daude eta, horren faltan, Kapital Sozietateen Legearen testu berregina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuan. Akziodunek badakite zeintzuk diren akziodun izateari aplikagarriak zaizkion eskubideak.

10. Akziodun legitimituren batek akziodunen batzar nagusia izan baino lehen eguneko gaiak osatzeko edo akordiorako proposamen berriak aurkezteko eskubidea erabiltzen duenean, sozietateak:

- a) Berehalaxe zabal ditzala puntu osagarri eta akordiorako proposamen berri hauek.
- b) Argitara eman ditzala bertaratze txartela edo botoa eskuordetzeko nahiz urrutiko botorako galdetegi ereduak, beharrezkoak diren aldaketekin, eguneko gai berriak eta akordiorako beste proposamenak bozkatu ahal izateko, administrazio kontseiluak proposatutakoak bezalaxe.
- c) Puntu eta beste proposamen horiek guztiak bozkatzeko jar ditzala, eta administrazio kontseiluak aurkeztutakoei ezartzen dizkien arau berberak ezar diezazkiela, bereziki, botoaren zentzuari buruzko presuntzioak edo dedukzioak.
- d) Akziodunen batzar nagusia izan eta gero, puntu osagarri edo beste proposamen hauei buruzko botoaren banakapenaren berri eman dezala.

Hiru akziodun baino ez daudenez, normalean batzordeak unibertsalak dira, baina hala eta guztiz ere, akziodun hauek jorratuko diren gaiei buruzko beharrezko informazioa izango dute, aldez aurretik eta batzarrak egin baino lehen, legeak aurreikusten dituen zehaztapenen arabera azaltzen dituzten eskariak ere aldi berean aintzat hartuta.

11. Sozietateak akziodunen batzar nagusira joateagatik sariak ordaintzeko asmoa badu, aldeztu aurretik zehatz dezala sari hauen inguruko politika orokorra, eta politika hau egonkorra izan dadila.

Ez da horrelako bertaratze saririk aurreikusten.

12. Kontseiluak bere eginkizunak helburu bakarrarekin eta irizpide independentziaz betetzea, egoera berean dauden akziodun guztioi tratua ematea eta gizartearen interesari jarrai diezaiola, hau da, epe luzera errentagarria eta jasangarria den negozioa izan dadila, bere jarraitutasuna eta enpresaren balio ekonomikoaren maximoa egitea susta dezala.

Eta gizarte-interesaren bilaketa, legeen eta araudien errespetuarekin eta guztiok onartutako praktika onetan, ohituren errespetuan etikan eta fede onean oinarritutako jokaerarekin batera, saia dadila gizarte-interesa bera, dagokionaren arabera, bere langileen, hornitzaileen eta bezeroen interes legitimoekin lotzen. Baita eragina jasotzen duten beste interes-taldeekin eta konpainiaren jardueren erkidegoan oro har eta ingurumeneari duten eraginarekin ere.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du. KUTXABANK, S.A.k oparotasun ekonomikoaren, gizarte-berdintasunaren eta ingurumenarekiko kalitatearen helburuak orekaz osatzen dituen kudeaketa-eredua ezartzen du. Konpromiso hirukoitz hau kaudimenduna den negozio-eredu batean islatzen da, prozesuak eta eragiketak alor ekonomikoko iraunkortasunarekin batera jartzen dituen; ingurua babesteko jarrera proaktiboaren bidez ingurumena zaintzeko borondatean, bere jarduerak sortzen dituen eraginak arintzen saiatuz; eta balio ekonomikoaren nahiz sozialaren sorreran, akziodunak diren hiru Banku Fundazioen gizarte-ekintzaren bidezko lankidetzari eta sustapen ekintzei esker.

13. Administrazio Kontseiluak funtzionamendu eraginkorra eta parte hartzailea izateko bezalako neurria izan dezala. Hori lortzeko, bost eta hamabost bitarteko kide izan ditzala gomendatzen da.

Administrazio Kontseilua 16 kidek osatzen dute. Kide horiek guztiek askotariko profil osagarriak dituzte KUTXABANK, S.A.ren gobernu eraginkorrerako. Hala ere, Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jaunak 2019ko urriaren 29an, egun horretatik aurrera, KUTXABANK, S.A.ko Administrazio Kontseiluko kide eginkizunari eta, ondorioz, Administrazio Kontseiluko lehen presidenteorde eta Batzorde Betearazleko kide eginkizunari uko egin ondoren, gaur egun postu huts bat dago, betetzeko prozesuan.

14. Administrazio Kontseiluak kontseilariak hautatzeko politika onar dezala, honakoak beteko dituen:

- a) Zehatza eta egiaztagarria izatea
- b) Izendapen edo berrautaketarako proposamenak aurretik administrazio kontseiluaren beharrak aztertuta egiten direla bermatzea.
- c) Ezagutza, esperientzia eta genero aniztasuna susta dezala.

Administrazio Kontseiluaren aurretiko analisiaren emaitza Izendapen Batzordearen txosten frogagarrian ager dadila. Txosten hau kontseilari bakoitza izendatzeko edo berrautatzeko berretsiko duen akziodunen batzar nagusian deitzean argitaratuko da.

Eta kontseilarien hautaketarako politikak 2020rako emakumezkoen kopurua, gutxienez, administrazio kontseiluaren kide guztien % 30ekoa izateko helburua susta dezala.

Izendapen Batzordeak urtero egiaztatuko du kontseilariak hautatzeko politika, eta horren berri emango du erakundearen gobernuaren urteko txostenean.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du, honakoak dituelako: (i) dagokion eta aplikagarria den araudian zehatutakoaren arabera (ekainaren 24ko 10/2014 Legea, kreditu entitateen antolamenduari, gainbegiratzeari eta kaudimenari nahiz hain garapenerako araudiari buruzkoa), administrazio kontseiluaren kideen, zuzendari nagusien edo kideen, barne kontroleko eginkizunen arduradunen edo Kutxabanken giltzarri diren beste kargu batzuen egokitasuna ebaluatzeko politika, eta (ii), Administrazio Kontseiluko kide izendatzeko hautagaiak aukeratzeko politika. Politika horiek izendapen edo berrautapen proposamenak Administrazio Kontseiluaren beharrezan aldez aurreko azterketa batean oinarritu daitezela ziurtatzen dute eta ezaguera, eskarmentu eta genero aniztasuna sustatzen dute. Era berean, KUTXABANK, S.A.k badu KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluan gutxien

ordezkatuta dagoen sexuaren ordezkatzeko helburuari buruzko politika. Politika horrek, dena den, ez du berariaz jasotzen 2020an emakume kontseilarien kopurua Administrazio Kontseiluko orotarako kideen % 30 izan behar dutela dioen helburua. Hala ere, jasota du emakume ehunekoa handitzeko beharrezkoak diren helburuak, eta helburu hori bilakaeraren eta bakanteak egotearen mende dago; hala ere, Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jaunak 2019ko urriaren 29an, egun horretatik aurrera, KUTXABANK, S.A.ko Administrazio Kontseiluko kide eginkizunari eta, ondorioz, Administrazio Kontseiluko lehen presidenteorde eta Batzorde Betearazleko kide eginkizunari uko egitearen ondorioz, gaur egun postu huts bat dago eta aipatutako ehuneko horrek, behin postua bete ondoren, gora egin dezake.

15. Kanpoko kontseilari dominikalek eta independenteek Kontseiluko gehiengo zabala izatea eta kontseilari exekutiboaren kopurua beharrezkoa den minimoa izatea, sozietate taldearen konplexutasuna eta kontseilari exekutiboek sozietatearen kapitalaren duten partaidetza portzentajea aintzat hartuta.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du. Sozietatearen Estatutuek xedatzen dutenez (25. artikulua), Administrazio Kontseilua, Batzar Nagusiari proposamenak egiteko eta bakanteak betetzeko kooptazioaren jardueran, organoaren osaketan kanpoko kontseilariak edo ez-exekutiboek kontseilari exekutiboaren aurrean, gehiengo zabala ordezkatzeko saiatuko da, baita haien artean kontseilari independenteen zenbatekoa arazoizkoa izaten, azken hauek, gutxienez, kontseilari guztien herena ordezkatu dezaten. Alderdi horiek guztiak betetzen ditu Erakundeak, 2019ko ekitaldiari dagokion Erakunde-Gobernuaren Urteko Txostenean zehaztu den bezalaxe.

16. Kontseilari dominikalen ehunekoa kontseilari ez-exekutibo guztienarekin alderatuta, kontseilari hauek ordezkatzeko duten sozietatearen kapitalaren eta gainontzeko kapitalaren arteko proportzioa baino handiagoa izan ez dadila.

Irizpide hau horrela arindu ahal izango da:

- a) Kapitalizazio handiko sozietateetan, legearen arabera esanguratsuak diren akzioen partaidetzak urriak badira.
- b) Administrazio Kontseiluan ordezkatzeko akziodunen arteko pluraltasuna dagoeneko eta haien artean loturarik ez dagoeneko sozietateetan.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du. KUTXABANK, S.A.k hiru akziodun baino ez ditu, sozietatearen kapitalaren % 100en titularrak, eta hiru hauek kontseilari dominikalek ordezkatzeko daude, orduan ez dago Administrazio Kontseiluan ordezkapenik ez duen sozietatearen kapitalaren ehunekorik.

17. Kontseilari independenteen kopuruak kontseilari kopuru osoaren erdia ordezkatzeko, gutxienez.

Hala ere, sozietatea kapitalizazio handikoa ez bada, edo izanik ere, akziodun bakarra edo koordinaketan aritzen diren batzuk daudenean, sozietatearen kapitalaren % 30 baino gehiago kontrolatzen dutenak, kontseilari independenteen kopurua, gutxienez, kontseilari guztien heren bat izatea.

KUTXABANK, S.A.k kapital sozialaren % 30etik gora kontrolatzen duen gutxienez akziodun bat du. KUTXABANK, S.A.k 16tik, 6 kontseilari independente ditu, hortaz, kontseilari independenteen kopuruak orotarako kontseilari kopuruaren % 37,5 ordezkatzeko du.

18. Sozietateek ezagutzera eman dezatela, haien web gunearen bidez, eta eguneratuta mantentzea, haien kontseilariak buruzko honako informazio hau:

- a) Profil profesionala eta biografikoa;
- b) Zeintzuk administrazio kontseiluan dauden, sozietate kotizatuak izan nahiz ez izan; baita ordaindutako beste edozein jarduerari buruzko informazioa.
- c) Zein kontseilari-kategoriatan dagoen, dagokionaren arabera, eta kontseilari dominikalen kasuan, zein akziodunaren ordezkariak diren edo zein akziodunarekin duten lotura zehaztuko da.

d) Sozietate kontseilari lehendabizikoz zein datatan izendatu zuten, baita geroko izendapenen datak ere, eta;

e) Konpainiaren akzioak, eta horren gaineko aukerak, titularra den kasuetan.

KUTXABANK, S.A.k partzialki betetzen du gomendio hau, ez duelako ezagutzera ematen, bere web gunearen bidez, gomendioak aipatzen duen informazio guzti-guztia, kontseilarien pribatutasuna errespetatzearen, sozietate kotizatua ez delako; halaber, legeak eskatzen ez duelako.

19. Erakundearen gobernuaren urteko txostenean, Izendapen Batzordeak aurretik egiaztatuta, azal dadila zergatik izendatu diren kontseilari dominikalak kapitalaren % 3 baino akzio-partaidetza txikiagoa duten akziodunek eskatuta; eta aipa dadila, zergatik ez diren kontuan hartu, egon badira, kontseiluan izateko eskariak, kontseilari dominikalak izendatzea eskatu zuten beste akziodun batzuen akzio-partaidetza bera edo handiagoa duten akziodunek eskatuta.

Gaur arte ez da aipatutako egoerarik gertatu.

20. Kontseilari dominikalek euren dimisioa aurkeztea ordezkatzan duten akziodunak bere akzio-partaidetza osorik saltzen badu. Halaber, gauza bera egin dezatela, dagokion kopuruan, akziodun horrek bere akzio-partaidetza duen kontseilari dominikal kopurua murriztea galdatzen duen mailara kopurura jaisten badu.

Orain arte ez da aipatutako egoerarik gertatu.

21. Administrazio Kontseiluak ez dezala ezein kontseilari independenteren kargu uztea proposatu izendatua izan den epealdi estatutarioa bete baino lehen, bidezko kausarik izan ezean, Kontseiluak onartua, Izendapen Batzordeak, alde aurretik, txostena luzatuta. Bereziki, bidezko kausa dagoela esango da, kontseilariak bere karguari datxezkion eginbeharrak bete ez balitu, edo deskribatutako baldintzaren batean erori balitz, bere independente izaera galtzea eragiten diotenak, aplikagarria den legedian ezarritakoaren arabera. Erosketa Eskaintza Publikoen, bategiteen edo sozietateetako kapitalaren egituraren aldaketa dakarten antzeko beste eragiketa batzuen ondorioz ere, kontseilari independenteen kargu uztea proposatuko da, Kontseiluko egiturako aldaketa horiek 16. gomendioan zehaztutako proportzionaltasun irizpideak bultzatuta datozenean.

Orain arte, KUTXABANK, S.A.k ez du proposatu ezein kontseilari independenteren kargu-uztea bere izendapenari estatutuen arabera dagokion epealdia bete baino lehen.

22. Sozietateek kontseilariak informazioa ematera eta, kasuaren arabera, kargua uztera behartzen dituzten arauak ezar ditzatela, sozietatearen kreditua eta ospea kalteku dezaketen kasuetan eta, bereziki, Kontseiluari informazioa ematera behar diezaiotela, auzi penalen batean inputatuta izanez gero, baita geroko prozesuzko gorabehera guztiei buruzko informazioa ere.

Kontseilariaren bat prozesatuko balute, edo bere kontra ahozko judizioa hasteko autoa irekiko balitz, Kapital Sozietateen legedian zehaztutako delituen batengatik, Kontseiluak ahalik eta lasterren aztertu beharko du kasua eta, bere baldintza zehazten arabera, kontseilariak bere karguan jarraituko duen ala ez erabaki dezala. Era berean, Kontseiluak horren guztiaren berri emango du, arrazoizko eran, Erakunde Gobernuaren Urteko Txostenean.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du, eta orain arte ez da aipatutako egoerarik gertatu.

Administrazio Kontseiluaren Araudiaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, Kontseilariak, beste inguruabarren artean, bere kargua utzi beharko dute i) eurek Kontseiluan jarraitzeak KUTXABANK, S.A.ren interesak arriskuan jar ditzakeenean edo ii) euren kontrako ahozko epaiketa irekitzeko autoa ematen denean, legez tipifikatutako edozein delituzko egitate egiteagatik.

Halaber, kontseiluari eman beharko diote aipatutako gertaeren berri, eta, bereziki, zigor-arloko zein auzitan agertzen den inputatuta.

23. Kontseilari guztiek azal dezatela argi eta garbi bere desadostasuna, Kontseiluari aurkeztu zaion erabaki

proposamenen bat interes sozialaren kontrakoa izan daitekeela irizten diotenean. Eta beste hainbeste egin dezatela, bereziki independenteek eta balizko interes-gatazkak eragiten ez dituen gainontzeko kontseilariak, Kontseiluan ordezkatuta ez dauden akziodunei eragingo diezazkieketen erabakiak diren kasuan.

Eta gai baten gainean kontseilariak erreserba serioak adierazi baditu eta Kontseiluak gai horren gaineko erabaki esanguratsuak edo errepikariak hartzen dituztenean, kontseilariak dagozkion ondorioak aterako ditu eta, dimisioa aurkeztea erabakiko balu, arrazoiak azal ditzala hurrengo gomendioak aipatzen duen gutunean. Gomendio honek Kontseiluko Idazkariari ere eragiten dio, nahiz eta kontseilaria ez izan.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du, eta orain arte ez da aipatutako egoerarik gertatu, administrazio kontseiluan eta batzorde eskuordetuetan izan daitezkeen beharrezko eztabaiden kalterik gabe.

24. Dimisioarengatik edo beste edozein arrazoiarengatik, kontseilari batek bere agintaldia amaitu baino lehen bere kargua uzten badu, arrazoiak azal ditzala, Kontseiluko kide guztiei helaraziko dien gutun batean. Eta kargu uzte hori gertakizun garrantzitsu gisa jakinaraztearen kalterik gabe, kargu uztearen arrazoiak erakunde gobernuaren urteko txostenean azal dadila

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du. Kontseiluaren erregelamenduaren 9.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, edozein arrazoiarengatik kontseilari batek kargua uzten badu agintaldia amaitu baino lehen, bere arrazoiak azaldu beharko ditu idazkariari edo idazkariordeari igorritako gutun batean, eta azken horrek azalpenak emango ditu Kontseiluaren hurrengo bileran, edo zuzenean Kontseiluaren beraren aurrean.

25. Izendapen Batzordeak kontseilari ez-exekutiboek euren eginkizunak egoki burutzeko behar duten beste denbora izan dezatela berma dezala.

Eta kontseiluaren araudiak zehatz dezala bere kontseilariak gehienez zenbat sozietateen kontseilutan parte har dezaketen.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du. KUTXABANK, S.A.k badu, indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, Administrazio Kontseiluko kideen, zuzendari nagusien edo parekoen, barne kontrol eginkizunen arduradunen eta KUTXABANK, S.A.ren jarduera burutzeko beste zenbait lanpostu giltzarriren egokitasuna ebaluatzeko politika. Administrazio Kontseiluko kideen eta zuzendari nagusien edo parekoen, barne kontrol eginkizunen arduradunen eta Bankuaren jarduera burutzeko beste zenbait lanpostu giltzarriren egokitasuna ebaluatzean, sozietate horrek aintzat hartu behar dituen irizpideak ezartzea du helburu politika horrek.

Politika hori KUTXABANK, S.A.ren Administrazio Kontseiluak onartu zuen eta Estatutuetan, Administrazio Kontseiluaren Araudian eta bere Batzorde Eskuordetuen araudietan eta Interes-gatazken KUTXABANK, S.A.ren Kudeaketa Politikan ezarritakoaren era gehigarrian ulertu behar da.

Horri dagokionez, Administrazio Kontseiluko kideen, zuzendari nagusien edo atzekoen, barne kontroleko eginkizunen arduradunen eta KUTXABANK, S.A.n lanpostu giltzarriak dituzten pertsonen egokitasuna ebaluatzeko, euren merkataritza ohorea eta ohore profesionala hartuko dira aintzat, baita euren jakinduria eta esperientzia ere. Administrazio Kontseiluko kideen kasuan, gobernu onari dagozkion alderdiak ere balioesten dira, zenbait adierazleren bidez, dedikazio ahalmena, independentzia eta interes-gatazkarik dagoen, esaterako. Hori guztia sektoreko araudia betetzeko, izan ere, aplikagarria baitzaio kreditu erakundea den aldetik eta, besteak beste, kontseilariak, gehienez, zenbat sozietateren kontseiluko kide izan daitezkeen ezartzen du.

26. Kontseilua bere eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar den maiztasunaz bildu dadila, gutxienez urtean zortzi aldiz, ekitaldiaren hasieran ezartzen duen data eta gai programari jarraiki, eta Kontseilari bakoitzak hasieran aurreikusi ez diren eguneko gai-zerrendako puntu berriak proposa ditzake.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du, izan ere, Administrazio Kontseilua 12 aldiz bildu da ekitaldi honetan.

27. Kontseilarien ez bertaratzeak ezinbesteko kasuetara murriz daitezela eta Erakunde Gobernuaren Urteko Txostenean kuantifika daitezela. Eta ordezkatzeari ezinbestekoa balitz, jarraibideekin batera eman dadila.

KUTXABANK, S.A.k partzialki betetzen du gomendio hori, Erakunde Gobernuaren Urteko Txostenean ez dagoelako aipatutako datua jasotzen duen atalik.

Hala ere, kontseilarien ez-bertaratzeak behar-beharrezko kasuetara mugatzen dira. 2019ko ekitaldian, Administrazio Kontseilura lau ez-bertaratze baino ez dira egon, eta, edozein kasutan ere, ordezkariak esleitu da. Era berean, ez-bertaratze horiek jasota geratzen dira urtero burutzen den Administrazio Kontseiluaren Ebaluazio Txostenean.

28. Kontseilariak edo Idazkariak proposamenen baten gaineko kezka adierazten dituztenean edo, kontseilarien kasuan, konpainiaren martxaren gaineko kezka bat adierazten dutenean, eta kezka horiek Kontseiluan argitzen ez badira, azaldu dituenak hala eskatuz gero, aktan jasota gera daitezela.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

29. Sozietateak kontseilariak euren eginkizunak bete ahal izateko behar duten aholkularitza lortzeko bide egokiak ipin ditzala, eta egoerak hala eskatuko balu, baita enpresaren kontura kanpoko aholkularitza hartzeko ere.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

30. Euren eginkizunak bete ahal izateko kontseilariak eskatzen zaizkien ezagutzak kontuan hartu gabe, Sozietateek kontseilariak ezaguerak eguneratzeko programak ere eman diezazkietela, baldintzek hala eskatzen dutenean.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du. Bereziki, kontseilarietarako Prestakuntza Programa izan du KUTXABANK, S.A.k 2019ko ekitaldian, bere Administrazio Kontseiluak onartua.

31. Batzarren eguneko gai-zerrendak argi aipa ditzala zeintzuk izango diren administrazio kontseiluak jorratu beharreko puntuak haiei buruz erabakiak hartzeko edo akordioak egiteko, kontseilariak, alde aurretik, horretarako ezinbestekoa duten informazioa batu edo ikasi ahal dezaten.

Salbuespen gisa eta premia arrazoiengatik, presidenteak eguneko gai-zerrendan ez dauden erabakiak edo akordioak aurkeztu nahi baditu administrazio kontseiluak onartzeko, ezinbestekoa izango da bertaratu diren kontseilari gehienek alde aurretiko onespenez zehatza, aktan behar bezala jasota geratuko dena.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du. Batzarren gai-zerrendan argi eta garbi zehazten dira Administrazio Kontseiluak zein punturi buruz hartu behar duen erabaki edo akordio bat. Era berean, ez ohiko eran, arrazoi larriengatik, presidenteak Administrazio Kontseiluak gai-zerrendan agertzen ez diren erabaki edo akordioei buruzko iritzia adieraz dezala nahi duenean, beharrezkoa da bertaratu diren kontseilari gehienek, alde aurretik, berariaz, euren onarpena eman dezatela, eta hori guztia aktan behar bezala jasota geratuko da.

32. Kontseilariak akziodunen artean dauden mugimenduen eta akziodun esanguratsuek, inbertitzaileek eta kalifikazio agentziek sozietateaz eta taldeaz duten iritzia berri jaso dezatela.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du, orain arte, hala ere, ez da mugimendurik izan akziodunen artean.

33. Presidenteak, administrazio kontseiluaren funtzionamendu eraginkorraren arduraduna den aldetik, legearen eta estatutuen arabera dagozkion eginkizunak gain, honakoez ere arduratuko da: administrazio kontseiluari joratzeko gai eta datu inguruko programa prestatzea eta helaraztea;

kontseilariaren aldizkako ebaluazioa, eta hala badagokio baita sozietatearen lehen exekutiboarena, antolatzea eta koordinatzea; kontseiluaren zuzendaritzaren arduraduna izatea, baita bere funtzionamenduaren eraginkortasunarena ere; gai estrategikoen eztabaidari behar besteko denbora ematen zaiela egiaztatzea; eta egoerak horrela aholkatzen duenean, kontseilari bakoitzarentzat ezagutzen gaurkotze programak adostea eta gainbegiratzea.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du, Erakundearen Kontseilari Koordinatzailearen figura egotearen kalterik gabe. Kontseilari horrek, beste eginkizunen artean eta, Izendapen Batzordeari eman zaizkionetatik aparte, Administrazio Kontseiluaren, bere Presidentearen eta Kontseilari Delegatuaren aldizkako ebaluazioa antolatzen eta koordinatzen du.

Presidenteak, beste eginkizun batzuen artean, kontseiluaren zuzendaritza ardura du eta bere funtzionamenduaren eraginkortasunarena ere bai. Gai estrategikoei nahiko eztabaida denbora ematen zaiela ziurtatzen du eta, kasuaren arabera, kontseilarien prestakuntzarako programen proposamenean laguntzen du.

34. Kontseilari Koordinatzailea badago, administrazio kontseiluaren estatutuek edo araudiak, legearen arabera dagozkion eginkizunetaz gain, ondokoak ere eman diezazkiola: presidentea edo presidenteordeak (izatekotan) ez badaude, administrazio kontseiluaren buru izango da; kontseilari ez-exekutiboek kezken berri izatea; inbertitzaileekin eta akziodunekin harremanetan egotea, haien ikuspegiak ezagutzeko eta haien kezken inguruan iritzia izateko, bereziki, sozietatearen gobernuari dagokionez; eta presidentearen ondorengotzarako plana koordinatzea.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori partzialki betetzen du, eta Kontseilari Koordinatzailearen eginkizunak, txosten honetan arestian aipatu diren beste batzuen artean, kanpoko kontseilarietara dagokion interlokuzioa egon dadin zentratzen dira, baita, egoki irizten zaionean, presidentearen ondorengotzarako plana abiaraztean ere, Administrazio Kontseiluak onartu duen bere eginkizunaren urteko planeko terminoetan, besteak beste.

35. Administrazio kontseiluaren idazkariak, administrazio kontseiluak bere jardueretan eta erabakietan gizartean aplikagarriak diren eta Kode honetan biltzen diren gobernu onaren inguruko gomendioak kontuan hartzea bereziki zain dezala.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

36. Administrazio Kontseiluak osoan eta urtean behin, hala badagokio, jarraian aipatuko diren alorretan antzemandako akatsak zuzentzen dituen ekintza-plana egin dezala:

- a) Administrazio kontseiluaren funtzionamenduaren kalitatea eta eraginkortasuna.
- b) Bere batzordeen funtzionamendua eta osaketa.
- c) Administrazio kontseiluaren osaketa eta eginkizun aniztasuna.
- d) Administrazio kontseiluaren presidentearen eta sozietatearen lehen exekutiboaren lana.
- e) Kontseilari guztien lana eta ekarpena, kontseiluaren batzordeen arduradunei arreta berezia eskainiz.

Batzordeen ebaluazioa egiteko hauek administrazio kontseiluari aurkezten dioten txostena izango da abiapuntua, eta azken horrena egiteko, Izendapen Batzordeak aurkezten diona.

Hiru urterik behin, administrazio kontseiluak kanpoko aholkulari baten laguntza jasoko du ebaluazioa egiteko; honen independentzia Izendapen Batzordeak egiaztatuko du.

Aholkulariak edo bere taldeko edozein sozietatek sozietatearekin edo bere taldeko edozein sozietatearekin dituzten negozio harremanak erakundearen gobernuaren urteko txostenean banakatu behar izango dira.

Prozesua eta ebaluatutako eremuak erakundearen gobernuaren urteko txostenean deskribatuko dira.

KUTXABANK, S.A.k i betetzen du gomendio hau, momentuz, ez delako zehaztu 3 urterik behin kanpoko aholkulariaren laguntza.

37. Batzorde Betearazlea dagoenean, kontseilari kategoria desberdinen partaidetza egitura Kontseiluak duenaren antzekoa izan dadila eta bere idazkaria Kontseilukoa izan dadila.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori partzialki betetzen du. Batzorde Betearazle bat dago, eta Administrazio Kontseiluak duen idazkari bera du. Hala ere, kontseilari kategoria desberdinen partaidetza egitura ez da Administrazio Kontseiluaren beraren erabat berdina, 2019ko Erakundearen Gobernuaren Urteko Txostenean arestiko hainbat ataletan zehaztu denez.

38. Kontseiluak beti ezagut ditzala tratatu diren gaiak eta Batzorde Betearazleak hartutako erabakiak eta administrazio kontseiluko kide guztiek jaso ditzatela Batzorde Betearazlearen bileren akten kopiak.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du. Administrazio Kontseiluak beti daki batzorde Betearazleak zin gairi buruz hitz egin duen eta zein erabaki hartu duen, eta bileren aktak kontseilarien eskura daude.

39. Auditoria Batzordearen kideak, eta bereziki bere presidentea, kontabilitate, Auditoria eta arriskuen kudeaketa gaitan dituzten ezagutzak eta esperientzia kontuan hartuta izenda daitezela, eta aipatutako kide gehienak kontseilari independenteak izan daitezela.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

40. Auditoria Batzordearen gainbegiratzearen pean, barne Auditoriaren eginkizunak bere gain hartuko dituen unitatea izatea, informazio eta barne kontrol sistemen funtzionamendu ona zainduko duena eta funtzionalki kontseiluaren presidente ez-exekutiboaren edo Auditoria Batzordearen menpe izango dena.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du, barne Auditoria, araudia betetzea eta taldearen kontrola, eta arriskuaren kontrol globala aintzat hartuta, Administrazio Kontseilura sarbide zuzena dutenak.

41. Barne Auditoriaren lana hartzen duen unitatearen arduradunak, Auditoria Batzordean bere urteko lan-plana aurkez dezala, bere garapenean gertatzen diren gorabeheren berri eman dezala zuzenean eta ekitaldiaren amaieran jardueren txostena erakuts dezala.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

42. Legek aurreikusitakoez gain, Auditoria Batzordeari egoki dakizkiola:

1. Informazio eta barne kontrol sistemei dagokienez:

- a) Sozietateari, eta hala badagokio, taldeari dagokion finantza-informazioaren elaborazioaren prozesua eta osotasuna gainbegiratzea, arauen arabera baldintzak betetzen diren, baterakuntzaren perimetroaren mugaketa egokia den eta kontu-irizpideen erabilera zuzena den begiratuta.
- b) Barne Auditoria eginkizunaren independentzia eta eraginkortasuna zaintzea; barne Auditoria zerbitzuko arduradunaren hautaketa, izendapena, berrautaketa eta kargu uztea proposatzea; zerbitzu horren aurrekontua proposatzea; orientabidea eta lan-planak onartzea, eta bere jarduera nagusiki sozietatearen arrisku esanguratsuetara zuzenduta dagoela bermatzea; bere jardueri buruzko aldizkako informazioa jasotzea; eta goi mailako zuzendaritzak bere txostenetako emaitzak eta gomendioak aintzat hartzen dituela egiaztatzea.
- c) Langileei, enpresa barruan antzeman eta garrantzi berezia duten irregulartasunak, era konfidentzian, eta egoki iritziz gero, era anonimoan, komunikatzea ahalbidetuko dien mekanismoa ezartzea eta gainbegiratzea. Batez ere, irregulartasun finantzarioak eta kontabilitatekoak.

2. Kanpoko auditoreari dagokionez:

- a) Kanpoko auditoreak bere karguari uko egitekotan, hau eragin dezaketen egoerak aztertzea.
- b) Kanpo auditoreak bere lanagatik jasotzen duen ordainsariak bere kalitatea eta independentzia arriskuan jar ez ditzala ziurtatzea.
- c) Sozietateak gertakizun esanguratsu gisa jakinaraz diezaiola CNMVri auditore aldaketa eta joan den auditorearekin desadostasunik duen azaltzen duen aitoren batekin batera egin dezala jakinarazpen hori, eta desadostasunik izan balitz, zertan dautzan.
- d) Kanpoko auditoreak urtero administrazio kontseiluaren osoko batzarrarekin biltzea egindako lanaz, kontuen egoeraren eboluzioaz eta sozietatearen arriskuez informazioa emateko.
- f) Sozietateak eta auditoreak Auditoria ez diren zerbitzuak emateari buruz, auditorearen negozioaren kontzentrazio mugei buruz, eta oro har, auditoreen independentzia ziurtatzeko ezarritako gainontzeko arauari buruz indarrean dauden arauak betetzen dituztela ziurta dezala.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du aplikagarria zaion eta izan zaion neurrian, une bakoitzean indarrean dagoen legeriak, KUTXABANK, S.A.ren estatutuek, Administrazio Kontseiluaren erregelamenduak eta Auditoria eta Betetze Batzordearen erregelamenduak aurreikusitakoaren arabera.

43. Auditoria Batzordeak sozietateko edozein langile edo zuzendari dei dezake, eta are gehiago, beste edozein zuzendariren presentziarik gabe bertara daitezela ere xeda dezake.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

44. Auditoria Batzordea sozietateak egin nahi dituen egituraren eta erakundearen inguruko aldaketen operazioez informatua izatea berauek aztertzeke eta aurretik administrazio kontseiluari informatzea bere ekonomia egoeraz eta kontuetako eraginaz, eta, bereziki eta hala badagokio, proposatutako truke-ekuazioaz.

Orain arte ez dira zehaztutako zirkunstantziak gertatu.

45. Kontrol eta arriskuen kudeaketa politikak identifika ditzala, gutxienez:

- a) Sozietateak zein arrisku motari, finantzarioei eta ez-finantzarioei, egin behar dion aurre (beste batzuen artean, eragiketakoak, teknologikoak, legalak, sozialak, ingurumenarenak, politikoak eta ospearenak...), eta finantzarioen eta ekonomikoen artean, pasibo kontingenteak eta balantzetik kanpoko beste arrisku batzuk sartuta;
- b) Sozietateak onargarria deritzon arrisku-maila finkatzea;
- c) Identifikatutako arriskuen eragina arintzeko aurreikusitako neurriak, gauzatuko balira;
- d) Aipatutako arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko erabiliko diren informazio eta barne kontrol sistemak, pasibo kontingenteak edo balantzetik kanpoko arriskuak barne.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

46. Auditoria Batzordearen gainbegiratze zuzenaren pean, edo, hala badagokio, administrazio kontseiluaren batzorde berezitu baten menpe, kontrol eta arriskuen kudeaketari buruzko eginkizuna egon dadila, honako betebeharrak dituen sozietatearen barne sail batek burutua:

- a) Arriskuen kontrolerako eta kudeaketarako sistemen funtzionamendu egokia bermatzea, eta bereziki, sozietatean eragina duten arrisku garrantzitsuak identifikatzen, kudeatzen eta zenbatzen direla.

- b) Arriskuen aurreko strategiaren lanketan eta haien kudeaketaren inguruko erabaki garrantzitsuetan aktiboki parte hartzea.
- c) Administrazio kontseiluak definitutako politikaren arloan kontrolerako eta kudeaketarako sistemek arriskuak egoki leuntzen dutela zaintzea.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

47. Izendapen eta Ordainsari Batzordearen kideak- edo Izendapen Batzordearenak eta ordainsari Batzordearen, banatuta egongo balira- euren gain hartu behar izango dituzten eginkizunetarako egokiak diren ezagutzak, gaitasunak eta esperientzia kontuan hartuta izenda daitezela, eta kide horien kide gehienak kontseilari independenteak izan daitezela.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du; hala ere, kide independenteak guztiaren % 50 dira.

48. Kapitalizazio handiko sozietateek Izendapen Batzordea eta Ordainsari Batzordea izan ditzatela.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

49. Izendapen Batzordeak administrazio kontseiluaren presidenteari eta sozietateko lehenengo exekutiboari kontsultatzea, batez ere, kontseilari exekutiboari buruzko gaiak direnean.

Eta edozein kontseilari Izendapen Batzordeari eskatzea izatea aintzat har dezala, egoki iritziko balie, kontseilari hutsuneak betetzeko hautagai izan litezkeenak.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du, aplikagarria zaion neurrian.

50. Ordainsari Batzordeak independentziaz bete ditzala bere eginkizunak, eta legeak esleitzen dizkion eginkizunez gain, hauetaz ere ardura dadila:

- a) Administrazio kontseiluari goi-mailako zuzendaritzakoei oinarrizko baldintzak proposatzea.
- b) Sozietateak zehaztutako ordainsarien politika betetzen dela egiaztatzea.
- c) Kontseilariari eta goi-mailako zuzendaritzakoei aplikatzen zaien ordainsarien politika, akzioak eta haien aplikazioak dituzten ordainsari sistemak barne, aldizka gainbegiratzea, eta baita banakako ordainsaria beste kontseilariari eta goi-mailako zuzendariei ordaintzen zaienarekin alderatuta neurrikoa izan dadila bermatzea.
- d) Gerta litezkeen interes-gatazkek Batzordeari emandako kanpo aholkularitzaren independentzia oztopatzen ez dutela bermatzea.
- e) Erakundearen agiritan, baita kontseilarien ordainsarien inguruko urteko txostenean ere agertzen den informazioa, kontseilarien eta goi-mailako zuzendaritzakoen ingurukoa, egiaztatzea.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du, aplikagarria zaion neurrian.

51. Ordainsari Batzordeak sozietateko presidenteari eta lehenengo exekutiboari galde diezaiela, batez ere, kontseilari exekutiboari eta goi-mailako zuzendariei buruzko gaiak diren kasuetan

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

52. Gainbegiratze eta kontrol batzordeen osaketa eta funtzionamendu arauak administrazio kontseiluaren araudian ager daitezela eta aurreko gomendioen arabera, legeak zehazten dituen batzordeei aplikatzen zaizkienekin bat etortzea; hauen artean:

- a) Batzordeak kontseilari ez-exekutiboek bakarrik osa ditzatela, gehienak kontseilari independenteak.
- b) Euren presidentek kontseilari independenteak izan daitezela.
- c) Kontseiluak izenda ditzala batzorde hauetako kideak, kontseilarien ezaguerak, gaitasunak eta esperientzia aintzat hartuta, baita batzorde bakoitzaren eginbeharrak ere; bere proposamen eta txostenei buruz eztabaida dezala; eta bere aurrean, eman dezatela, bileren osteko administrazio kontseiluaren lehendabiziko batzarrean, bere jardueraren berri eta egin duten lanaren berri.
- d) Batzordeek kanpoko aholkularitza eskatzea izan dezatela, bere eginkizunak betetzeko beharrezko deritzotenean.

e) Bere bileren akta altxa dezatela, eta horren kopia bidal dadila Kontseiluko kide guztiei.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du, gaur egun eratuta dituen kontrol eginkizunak dituzten batzorde eskuordetuetan.

53. Erakundearen gobernuaren arauak, portaerako barne-araudia eta erakundearen gizarte-erantzukizunaren politika betetzen dela gainbegiratzea administrazio kontseiluaren batzorde baten edo batzuen esku gera dadila. Hauek Auditoria Batzordea, Izendapen Batzordea, erakundearen Gizarte-Erantzukizun Batzordea (baldin balego) edo administrazio kontseiluak, dagozkion auto-antolakuntza ahalmenen arabera, horretarako sor lezakeen batzorde berezitua, jarraian aipatzen diren gutxieneko eginkizunez berariaz arduratuko dena:

- a) Portaerako barne-araudia eta erakundearen gobernuaren arauak betetzen direla gainbegiratzea.
- b) Txikiak edo ertainak diren akziodunekin ere eta inbertitzaileekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko erabilitako estrategia gainbegiratzea.
- c) Sozietatearen gobernuaren sistemaren egokitzapena aldizka ebaluatzea, gizarte-interesa sustatzeko duen eginkizuna bete dadila eta kontuan har ditzala, dagozkionaren arabera, gainontzeko interes-taldeen bidezko interesak.
- d) Sozietatearen erantzukizun politika gainbegiratzea, balorea sortzeko helburua zaintzeko.
- e) Erakundearen gizarte-erantzukizunaren estrategia eta jarduerak jarraitzea, eta zein mailataraino betetzen diren ebaluatzea.
- f) Interes-taldeekin harreman prozesuak gainbegiratzea eta ebaluatzea.
- g) Enpresaren arrisku ez-finantzarioei dagozkion guztia ebaluatzea, eragiketakoak, teknologikoak, legalak, sozialak, ingurumenarenak, politikoak eta ospearenak barne.
- h) Aniztasunaren inguruko informazioaren eta informazio ez-finantzarioaren berri-emate prozesuaren koordinaketa, aplikagarria den araudiaren eta erreferentziako nazioarteko estandarren arabera.

KUTXABANK, S.A.k partzialki betetzen du gomendio hori, eta aipatutako eginkizunak osoko Administrazio Kontseiluak burutzen ditu edo bere batzorde eskuordeturen batek.

54. Erakundearen gizarte-erantzukizunaren politikak enpresak interes-taldeekin borondatez onartzen dituen printzipioak edo konpromisoak bere barne har ditzala eta gutxienez honako hauek identifika ditzala:

- a) Erakundearen gizarte-erantzukizunaren politikaren helburuak eta laguntza-tresnen garapena.
- b) Iraunkortasunarekin, ingurumenarekin eta gizarte kontuekin lotuta erakundeak duen estrategia.
- c) Honako hauekin lotutako jarduera zehatzak: akziodunekin, langileekin, bezeroekin, hornitzaileekin, gizarte kontuekin, ingurumenarekin, aniztasunarekin, zerga-erantzukizunarekin, giza eskubideak errespetatzearekin eta legez kanpoko jokabideen prebentzioarekin.
- d) Aurreko hizkian aipatutako jarduera zehatzak ezartzearen ondorioen jarraipenerako metodoak edo sistemak, lotutako arriskuak eta euren kudeaketa.
- e) Arrisku ez-finantzarioaren, etikaren eta enpresaren jokabidearen gainbegiratze-mekanismoak.
- f) Interes-taldeekin komunikatzeko, parte hartzeko eta hitz egiteko bideak.
- g) Informazioaren manipulazioa saihesten duten eta osotasuna nahiz ohorea babesten duten komunikazio-jarduerak.

KUTXABANK, S.A.k helburuei, estrategiei eta praktikei dagozkien gomendioak betetzen ditu.

55. Sozietateak, aparteko agiri batean edo kudeaketa-txostenean, erakundearen gizarte erantzukizunarekin lotutako gaien berri eman ditzala. Horretarako nazioartean onartutako metodologietako bat erabiliko du.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

56. Kanpoko kontseilarien ordainsaria bilatzen den profileko kontseilariak erakartzeko eta atxikitze eta karguak galdatzen duen dedikazioa, kualifikazioa eta erantzukizuna ordaintzeko beharrezkoa dena izan dadila; baina, ez kontseilari ez-exekutiboen irizpideen independentzia konprometitzeko bezain altua.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

57. Kontseilari exekutiboei muga daitezela sozietatearen etekinarekin eta norberaren lanarekin lotutako ordainsari aldakorrak, baita akzioen, akzioen gaineko aukeren nahiz eskubideen edo akzioaren baliora erreferentziatutako tresnen, edo epe luzerako aurrezki-planen (esaterako pentsio planen, erretiro-planen edo bestelako gizarte aurreikuspeneko planen) bidezko ordainsariak.

Kontseilari ez-exekutiboei ere ordainsari gisa akzioak ematea onartuko da kargua utzi arte mantenduko dituzten baldintzarekin. Aurrekoa ez da aplikatuko kontseilariak besterendu behar dituen akzioen kasuan, hala badagokio, erosketarekin lotutako kostuak betetzeko.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

58. Ordainsari aldakorren kasuan, ordainsari politikek ordainsari horiek onuradunen jarduera profesionalarekin zerikusia dutela ziurtatzeko beharrezko mugak eta kautela teknikoak har ditzatela barne eta ez datozela merkatuen bilakaera orokorretik edo konpainiaren jarduera sektoretik edo antzeko beste inguruabar batzuetatik.

Eta, bereziki, ordainsarien osagarri aldakorrak:

a) Aurretik zehaztutako etekin-irizpide neurgarriei lotuta egon daitezela, eta aipatutako irizpideek emaitza jakin bat lortzeko onartutako arriskua kontuan har dezatela.

b) Enpresaren iraunkortasuna susta dezatela eta epe luzerako balioa sortzeko egokiak diren irizpide ez-finantzarioak jaso ditzatela, esaterako sozietatearen arauak eta barne-prozedurak eta kontrolerako nahiz arrisku-kudeaketarako bere politikak betetzea.

c) Epe labur, ertain eta luzerako helburuak betetzearen oreka oinarritzat hartuta era daitezela, balio iraunkorraren sorreran izandako ekarpena aintzat hartzeko behar besteko epeaz jarduerak betetzeagatiko errendimendua ordaintzea ahalbide dezatela. Horrela, errendimendu hori neurtzeko elementuak ez dira bakarrik unean uneko, aldizkako edo ez-ohiko gertaeren arabekoak izango.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

59. Ordainsariaren osagarri aldakorren zati esanguratsu baten ordainketa atzera dadila aurretik zehaztutako etekin-baldintzak bete direla egiaztatzeko behar den gutxieneko epeaz.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

60. Sozietatearen emaitzekin zerikusia duten ordainsariek, kanpoko auditorearen txostenean zehaztu eta emaitza horiek murrizten dituzten behin behineko salbuespenak har ditzatela aintzat.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du.

61. Kontseilari exekutiboen ordainsari aldakorraren ehuneko esanguratsua akzioak edo bere baliora erreferentziatutako finantza-tresnak emateari lotuta egotea.

Gomendio hau ez da aplikagarria KUTXABANK, S.A.n, kontseilari exekutiboei ez baitzaie akziorik emanda ordaintzen.

62. Ordainsari-sistemei dagozkien akzioen gaineko akzioak, aukerak edo eskubideak esleituta, kontseilariak ezin dezatela besterendu bere urteko ordainsari finkoa bi aldiz besteko akzio kopuruaren jabetza, ezta aukerak edo eskubideak gauzatu, esleipenetik, gutxienez, 3 urte pasatu arte.

Aurrekoa ez da aplikatuko kontseilariak besterendu behar dituen akzioen kasuan, hala badagokio, erosketarekin lotutako kostuak betetzeko.

Gomendio hau ez da aplikagarria KUTXABANK, S.A.n, kontseilari exekutiboei ez baitzaie akziorik emanda ordaintzen.

63. Kontratu-akordioek klausula izan dezatela, sozietateari ordainsariaren osagarri aldakorren errenboltsoa eskatzeko bidea emango duena ordainketa etekin baldintzen arabera izan ez denean edo haien zehaztasun eza gerora egiaztatuta duten datuei jarraituta ordaindu direnean.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du, araudiak galdatzen duenaren arabera.

64. Kontratuaren suntsipenarengatiko ordainketak urteko ordainsari osoaren bi urte besteko zenbateko zehatza baino gehiago ez izatea, eta sozietateak kontseilariak aurretik zehaztutako errendimendu-irizpideak bete dituela egiaztatu arte ez daitezela ordain.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hori betetzen du, galdatutako araudi terminoetan.

Kutxabank, S.A.ren administratzaileei,

KUTXABANK, S.A.ren (aurrerantzean, Erakundea) Administrazio Kontseiluaren eskaeraren arabera eta 2019ko abenduaren 17ko gure gutun proposamenaren arabera, zenbait prozedura ezarri ditugu atxikitako Kutxabank, S.A.ren 2019ko ekitaldiari dagokion Erakunde Gobernuaren Urteko Txostenean dagoen "FIBKSri buruzko informazio" delakoaren gainean. Hor laburbiltzen baitira Erakundearen barne kontroleko prozedurak urteko finantza informazioari dagokionez.

Barne kontrol sistema egokia ezartzea, mantentzea eta gainbegiratzea arrazoiz bermatzeko beharrezko neurriak hartzearen arduraduna da Administrazio Kontseilua, baita sistema hori hobetzeko garapenaren arduraduna ere eta atxiki den FIBKSri dagokion informazioaren edukia prestatzearena eta ezartzearena ere.

Zentzu horretan, urteko finantza informazioari dagokionez, Erakundeak hartu duen barne kontroleko sistemaren diseinuaren kalitatea eta eraginkortasuna alde batera utzita, sistema horrek arrazoizko segurtasuna baino ezin berma dezakeela hartu behar da aintzat, eta ez erabatekoa, dituen helburuei dagokienez, barne kontroleko sistema orok dituen mugak direla eta.

Urteko kontuen gure auditoria lanaren ibilbidean eta Auditoria Arau Teknikoen arabera, Erakundearen barne kontrolaren gure ebaluazioak helburu bakarra izan du, hau da, KUTXABANK, S.A.ren urteko kontuen auditoria prozeduren irismena, izaera eta noiz egin diren ezartzea ahalbidetzea. Hortaz, barne kontrolaren gure ebaluazioa, aipatutako kontu auditoria horren ondorioetarako egina, ez da nahikoa zabala izan, barne kontrol horrek araututako urteko finantza informazioaren gainean duen eraginkortasunari buruzko iritzi zehatza eman ahal izateko.

Txosten hau jaulkitzearen ondorioetarako, jarraian deskribatuko diren eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak bere web orrian argitaratutako *Erakundearen Finantza Informazioari buruzko Barne Kontroleko Sistemari buruzko informazioari buruzko auditorearen Txostenaren gaineko Jarduera Gidan* zehazten diren prozedura bereziak baino ez ditugu ezarri. Gida horren ezartzen du egin beharreko lana, lan horren gutxieneko irismena, baita txosten honen edukia ere. Edozein kasutan, prozedura horietatik eratortzen den lanak irismen murrizta duenez, eta auditoria batek edo barne kontrolaren gaineko berrikuspen batek baino nabarmen txikiagoa, ez dugu horren eraginkortasunaren gaineko iritzia emango, ezta bere diseinua eta eraginkortasun operatiboaren gainekoa ere, atxikitako FIBKSri buruzko Txostenean deskribatzen den 2019ko ekitaldiari dagokion Erakundearen urteko finantza informazioari dagokionez. Ondorioz, aipatutako Gidak zehaztutako prozedura gehigarriak aplikatu izan bagenu edo auditoria egin izan bagenu edo araututako urteko finantza informazioaren barne kontrol sistemaren gaineko berrikuspena egin izan bagenu, beste zenbait egintza edo alderdi ager zitezkeen eta horien gaineko informazioa emango genizuekeen.

Era berean, lan berezi hau kontu-auditoria ez denez, eta Espainian inadrrean dagoen kontu-auditoria araudi erregulatzailaren mende ez dagoenez, ez dugu auditoria iritzia adierazten aipatutako araudi horretan zehaztutako terminoetan.

Jarraian, ezarritako prozedurak azalduko dira:

1. Erakundeak FIBKSri dagokionez prestatu duen informazioa irakurri eta ulertzea –Kudeaketa Txostenean sartutako banakatze informazioa- eta informazio horrek ea eskatzen den informazio guztia agertzen duen ebaluatzea. Informazio horrek Erakunde Gobernuaren Urteko Txosten ereduaren FIBKSri buruzko F atalean deskribatutako

gutxieneko edukiari jarraituko dio, CNMVren 2013ko ekainaren 12ko 5/2013 Zirkularrean, gerora CNMVren 2015eko abenduaren 22ko 7/2015 Zirkularrak aldatu zuena eta 2018ko ekainaren 12ko 2/2018 Zirkularrean ezartzen denaren arabera (aurrerantzean, CNMVren Zirkularrak).

2. Aurreko 1 puntuan zehaztutako informazioa lantzearen ardura izan duten langileei galderak egitea, honako helburu hauekin: (i) lanketan jarraitu den prozesua ulertzea; (ii) erabilitako terminologia erreferentzia merkatuaren definizioei doitzen zaien ebaluatzea ahalbidetuko duen informazioa lortzea; (iii) deskribatutako kontrol prozedurak erakundearen ezarrita dauden eta funtzionamenduan jakiteko informazioa lortzea.

3. Aurreko 1 puntuan zehaztutako informazioaren euskarria den azalpen dokumentazioa berrikustea, eta batez ere, FIBKSren informazio deskriptiboa formulatzearen arduradunen eskura zuzenean jarri dena izango da. Zentzu horretan, dokumentazio horrek barne auditoria funtzioak, goi mailako zuzendaritzak eta barneko edo kanpoko beste aditu batzuek, auditoria batzordeari laguntza emateko bere lanean, prestatutako txostenak hartzen ditu barne.

4. Aurreko 1 puntuan zehaztutako informazioa alderatzea, urteko kontuen (indibidualen eta bateratuen) auditoriaren lanen esparruan egindako prozedurak ezartzearen ondorioz lortu den erakundearen FIBKS ezagututa.

5. Administrazio kontseiluaren, auditoria batzordearen eta erakundearen beste batzorde batzuen bileren aktak irakurtzea, FIBKSri buruz akta horietan agertzen diren gaien eta aurreko 1 puntuan zehaztutako informazioaren arteko koherentzia ebaluatzeko ondorioz.

6. Egindako lanari buruzko adierazpen-gutuna lortzea, aurreko 1 puntuan zehaztutako informazioa prestatu eta formulatzearen arduradunak behar bezala sinatuta.

FIBKSri dagokion Informazioaren gainean ezarritako prozeduren ondorioz, ez da agertu eragin diezaiokeen oinarri faltarik edo gorabeherarik.

Txosten hau Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginaren 540 artikulua, eta (Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala) CNMVren Zirkularrek ezarritako eskakizunen markoan prestatu da eskusiboki, Erakunde Gobernuaren Urteko Txostenean FIBKS deskripzioaren ondorioetarako.

DELOITTE, S.L.

Rafael Orti Baquerizo
2020ko otsailaren 27a

* Jatorrizko dokumentua, gaztelaniaz jaulkia, txostenaren gaztelaniazko bertsioan dago argitaratuta.